




Berrigara

1998ko abenduaren 24a JAIKIN ELKARTEA



1998

urteari errepasoa



Gabonetan inor esku-hutsa



Eraztunak

ETXEBERRIA. Bidekurutzeta 16



Eastpak motxila eta poltsa. Bizitza osorako garrantia
LAZKANO. Barrenkalea 15-17

Germaine de Capucciniren Carmen Vidal perfumea
GIARTZU. Boni Laskurain 3



Eskuz landutako
"Corazon de m..."
lanpara
KANELA. Esp...



Lohe kamisoi transparentea

NEREA. Simon Arrieta

Pelutxeak

JOLAS. Barrenkalea 27



Homeless puntuzko soineko
transparentea
eta lanazko beroki luzea
MAYA. Irizar 2

Barometroa, teremometroa eta higrometroa
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA. Ibargarai 16



Slaga ez dezazun.



Rochas eguzkitarako betaurrekoak
P. MANSO. Irizar 2



Germaine de Capucciniren Excel Therapy Renacer
aurpegirako krema lotea, opari eta guzti
GIARTZU. Boni Laskurain 3

Udy galtzontziloak
GANTXEGI. Telesforo Aranzadi 2



Ibiltariarendako podometroa
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA.
Ibargarai 16



Umeendako Conor mendiko bizikleta
BICIPRECISION IGARTUA.
Zubieta 5-7



Rochasen Alchimie
perfumea
ALGA. Ibargarai 10



Lee kazadora eta prakak
PRAKAK. Burdinate z/g



Movistar telefono mobila. 19.000 pta
ZAI AZKO. Telesforo Aranzadi



Eta laga ez zaitzaten.



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
 20.570 Bergara
 Laguntza teknikorako zerbitzu
 ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



Lurradero 2.
 Tf. 943 76 01 26

Matxiategi 4.
 Tf. 943 76 57 99

Bergara

OLABE
okindegia - gozotegia

Gabon
 alaiak eta
 urte berri
 gozo!



Berrigara

349 zenbakia. 1998 urteari errepasoa
1998ko abenduaren 24a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria
Eneko Azkarate
Erredakzioa
Edu Mendibil
Aitziber Azkondo
Maketazioa
Iñaki Iturbe
Publizitatea
Kristina Romero
Harpidetza
Itziar Kortabarria
Testuen zuzenketak
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Erredakzio kontseilua
Miguel Angel Elkorobereizburu
Alex Labaien
Gorka Elortza
Komikiak
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate
Kolaboratzaileak
Juan Martin Elexpuru
Josu Okina
Luis Mari Agirre
Imanol Sorondo
Banaketa
Txantxangorri taldea
Inprimategia
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Azala: Berrigara

Tirada: 5.100 ale

Copyright: BERRIGARA
Lege gordailua: SS 50/91
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
intzieren erantzukizunik.

Erakunde hauen
laguntzaz:



Aurkibidea

Gaiak Urteko albiste aipagarrienak kirolari, kulturari eta bestelako gertakariei buruz

- 8 URTEKO **ALBISTEAK**
- 24 URTEKO **KIROL ALBISTEAK**
- 54 URTEKO **KULTUR ALBISTEAK**



Perfilak 1998an zehar zeresana eman duten herriko pertsonaiei buruz beste hainbeste lagunek idatzitako hitzak

- 16 KOLDO **LASA**
- 19 AITOR **ZABALETA**
- 32 IKER **MURUAMENDIARAZ**
- 37 MIKEL **HERZOG**
- 50 LUISA **AGIRREZABAL**
- 53 JESUS MARI **UGALDE**

Bereziak Urtearen hondarrean, hamabi hileok eman dutenari begirada, hainbat ataletan

- 6 GABONETAKO **AGENDA**
- 20 URTEARI **ERREPASOA KAZETARIEN ESKUTIK**
- 38 URTEKO **AHOPEKOAK**
- 42 MAHAINGURUA: **ETXEBIZITZAK BERGARAN**
- 46 IZARREN AHOTSA: **ZER DIO HOROSKOPOAK 1999ari BURUZ?**
- 62 1998AN **JAIOTAKOEN ETA HILDAKOEN ZERRENDA**
- 64 ERRETRATU **ZAHARRA**



Gabonetako agenda

EGUENA 24

- **Amnistiaren aldeko Olentzeroa.** Irteera 8:00etan Zabala jatetxetik. 15:00etan bazkaria Artatsen
- **Elosuko auzotarrak** baserriz baseri aterako dira kantuan, goizeko 9etan Elosuko frontoitik.
- **Jubilatuaren abesbatza-
ren emanaldia** 12:30etan San Joxepe elkartean.

► **Senideak** taldeak eta **Jose Mari Etxanizen** aldeko plataformak enkartelada egingo dute 19:00etan Plazan. Kanean abesten ari-tuko diren taldeei 19:15etan Plazan elkarrekin kantatze-ko dei egiten zaie.



EGUAKITZA 25

- **Novedades: "Algo pasa con Mary".** 17:00, 19:30, 22:30.
- **Bergarako pintoreen erakusketa** abenduaren 27ra arte Kultur Etxean.
- **Mikel Landa Martinez** Burlatako margolariaren lanak Nahikari tabernan.

ZAPATUA 26

- **Jardun Elkarteko gaztetxoaren irteera** Gasteizera, "Bai Euskarari" kanpainaren azken jaialdia ikustera. Irteera 15:30etan autobus geltokitik.
- **Bai euskarari** kanpainari amaiera emateko jaialdiak izango dira Euskal Herriko bost estadio nagusietan. Bergaratik autobusa aterako da 15:30etan autobus geltokitik Gasteizera. Mendizorrotzako jaialdia 17:30etan hasiko da.


- **Novedades: "Algo pasa con Mary".** 17:00, 19:30, 22:30.
- **Nuevo Catecismo Catolico**, First Fucking eta Assholes taldeak, 22:30etan Sorluzeko Gaztetxean.

DOMEKA 27

- **Jardun elkarteak antolatuta, pista jokoa** Gartzela Zaharrean, 17:00etatik 20:00etara. Gartzelako Jarduneko bazkideentzat.
- **Novedades: "Algo pasa con Mary".** 17:00, 19:30, 22:15.
- **Kultur Errotaren** programazioaren barruan, **Jabier Muguruza** eta **Itzaletik** hirukotea. 20:00etan Pol-Polen.

ASTELEHENA 28

- **Ur jolasak** Agorrosingo igerilekuetan, 10:30etatik 13:00era. 14 urtetik beherakoentzat. Sarrera: 100 pezeta Kirol Zerbitzuko bazkideentzat, 200 pezeta gai-nontzekoentzat.
- **Tute eta billar txapelketa** 15:30etan San Joxepe jubilatuen elkartean.
- **Gabonetako parkea** 15:30etatik 18:30etara Labegaraietako kiroldegian, 14 urtetik beherakoentzat. Era guztietako jolasak eta hainbat tailer Xipizaroren eskutik. Bost urtetik beherako haurrentzat joku bere-



Gabonetako parkea

ziak. Ariznoa erritmikoa elkartearen erakustaldia baita. Eguneroko sarrera: 200 pezeta (3 egunetako bonoa 500 pezeta). Gurasoendako futbolin eta dardo txapelketak.

► **Jardun elkarteak antolatuta, puzgarri handi bat eta zezen mekanikoa** Gartzela Zaharrean, 17:00etatik 20:00etara. Gartzelako Jarduneko bazkideentzat.

► **Novedades: "Algo pasa con Mary".** 19:30. Ikuslearen eguna.

MARTITZENA 29

► **Ur jolasak**
Agorrosingo igerilekue-
tan, 10:30etatik 13:00era.
14 urteik beherakoentzat.

► **Mus txapelketa**
15:30etan San Xosepe jubi-
latuen elkartearen.

► **Gabonetako parkea**
15:30etatik 18:30etara
Labegarrietako kiroldegian,
Eguraldi ona baldin bada,
patinak ere eraman daitez-
ke.

► **Gazte mailako**
Gabonetako VIII. Futbol
Txapelketa. Real
Sociedad-Aretxabaletako
UDA, 17:00etan Ipintzan.

► **Jardun** elkarteak antola-
tuta, **antzerki emanaldia**
17:00etan Kartzela
Zaharrean. Taun-Taunek
"Txio-txioka" azken lana
aurkeztuko du Kartzelako
Jarduneko bazkideentzat.
Ondoren, merienda ederra
izango da.

► **Morau** kantariaren ema-
naldia 22:00etan Soraluze-
ko Gaztelupe tabernan.

EGUAZTENA 30

► **Briska txapelketa**
15:30etan San Xosepe jubi-
latuen elkartearen.

► **Gabonetako parkea**
15:30etatik 18:30etara
Labegarrietako kiroldegian.
Ariznoa erritmika elkartea-
ren erakustaldia, herri-kiro-
letako jaialdia eta Hika tal-
dearen "Xagukumeak"
antzezlanak.

► **Gazte mailako**
Gabonetako VIII. Futbol
Txapelketa. Aloña Mendi-
Bergara, 17:00etan Ipintzan.



► **Bizar Zuri** 19:30etatik
aurrera. Kultur Etxetik egin-
to da Bizar Zuriren irteera.

► **Bergarako eskultore-**
en erakusketa abendua-
ren 30etik urtarrilaren 10era
Kultur Etxean ikusgai.

► **The Nightrains eta**
Assholes taldeak 22:30etan
Pol-Polen.

► **Su ta Gar eta Flutter**
taldeak Jam aretoan. 1.000
pezeta.

EGUENA 31

► **Sari banaketa** eta zoz-
keta 17:00etan San Xosepe
jubilatuen elkartearen.

► **Gazte mailako**
Gabonetako VIII. Futbol
Txapelketaren finala,
16:00etan Agorrosinen.

► **Novedades: Antz**
(Hormigaz). 17.00.



EGUAKITZA 1

► **Novedades**: 17.00, 19:30,
22:30 (filmea zehazteke).

ZAPATUA 2

► **Edu Muruamendiaraz**
bergarar dantzariaren
"Aukeran" izenburuko
koreografia 22:00etan Jam
aretoan. Sarrerak 1.000
pezetan salgai.

MARTITZENA 5

► **Jaiotza biziduna**
Elosuko frontoian 17:00eta-
tik aurrera.

► **Erregeen kabalgata**
Elosun, 18:00etan. Erregeak
Bentatik Elosuko frontoira
etorriko dira Jesus
Haurtxoari opariak
ekartzera.

► **Erregeen kabalgata**
Bergarako kaleetan
19:30etan, Kultur Etxetik
hasita.

► **Derrick May** Detroit-
etik etorritako Djaren ema-
naldia Jam aretoan.
Estatubatuarrak Gerard
(Technopolis) eta Jam-eko
Pablo eta Orlando Djekin
batera aktuatuko du.

Farmaziak

Eguena 24:
ESTELLA. *Matxiategi 5*. Tf. 943 76 19 63.
Eguakitza 25:
MOZOS. *San Pedro 4*. Tf. 943 76 12 15.
Zapatua 26:
CAMACHO. *Oxirondo 4*. Tf. 943 76 11 74.
Domeka 27:
CAMACHO. *Oxirondo 4*. Tf. 943 76 11 74.
Astelehena 28:
PUY. *Barrenkalea 25*. Tf. 943 76 16 87.
Martitzena 29:
GUALLAR. *San Antonio 5*. Tf. 943 76 11 05.
Eguaztena 30:
ESTELLA. *Matxiategi 5*. Tf. 943 76 19 63.
Eguena 31:
MOZOS. *San Pedro 4*. Tf. 943 76 12 15.
Eguakitza 1:
CAMACHO. *Oxirondo 4*. Tf. 943 76 11 74.
Zapatua 2:
PUY. *Barrenkalea 25*. Tf. 943 76 16 87.
Domeka 3:
PUY. *Barrenkalea 25*. Tf. 943 76 16 87.
Astelehena 4:
GUALLAR. *San Antonio 5*. Tf. 943 76 11 05.
Martitzena 5:
ESTELLA. *Matxiategi 5*. Tf. 943 76 19 63.
Eguaztena 6:
MOZOS. *San Pedro 4*. Tf. 943 76 12 15.
Eguena 7:
CAMACHO. *Oxirondo 4*. Tf. 943 76 11 74.
Eguakitza 8:
PUY. *Barrenkalea 25*. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 27: Konde.
Domeka 3: Mizpildi.
Eguaztena 6: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK	
SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
GARRAIOAK	
Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99
UDALA	
Udaletxea	943 77 91 00
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68
BESTELAKOAK	
Postetxea	943 76 26 85

Urteko Albisteak

■ Urtarrilak 31

700 lagun bildu ziren Udal Pilotalekuan, joan zen urtean istripu larria izan zuen Mikel Vicente gaztearen aldeko jaialdian. Gabon inguruan eta urte hasieran hainbat ekimen bultzatu zituzten gaztearen alde eta Bergarako herriak erabateko erantzuna eman zien. Guztira, 10 bat milioi batu ziren.

■ Otsailak 1

Bergarako hirugarren epaitegiko idazkariaren kotxeari su eman zioten gaueko 22:30ak aldera ezezagun batzuek. Peugeot 205 autoa Koldo Eleizalden aparkatuta zegoen eta zeharo kiskalita geratu zen.

■ Martxoak 13

LAB sindikatuaren egoitza berria inauguratu zuen Rafa Diez sindikatuko Idazkari Nagusiak, Ibargarai 39an.

■ Martxoak 13

Prekariatatearen kontra eta aldi baterako langileak kontratatzen dituzten enpresen (ETT) kontra protesta egiteko 150 bat lagun bildu ziren.

■ Martxoak 18

Araba Komandoarekin lotura zutelakoan zazpi lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak Bergara eta Antzuolan. Egun batzuk Madrilan, koartelean eman ondoren, lau aske laga zituzten. Beste hirurak espetxera eraman zituzten. Horiematik, Mikel Berasategi uztailan irten zen Carabancheleko espetxetik eta Pili Agirre urrian. Mari Karmen Irizar da kartelari jarraitzen duen bakarra. Polizia operazioarengatik protestatze-ko manifestazio jendetsuak izan ziren San Jose zubian.



Obrak astiro. Asko kostata izan bada ere, 1998an industrialdeako lehen faseko urbanizazio lanak ia amaitu dituzte.

LABEGARAIETAKO INDUSTRIALDEA ABIAN

Urtarrilean hasi ziren **Labegaraietako Industrialdea urbanizatzeko lehen faseko obrak** eta azaroan ia amaitu zituzten. Datorren urte hasieran ekingo diote pabilioiak eraikitzen ari eta 1999an lehen lantegiak abian izango dira. Bestalde, abenduan Bergarako Industrialdeko S.A. enpresaren kapital soziala 100 milioi pezetatan gehitzea onartu zuen Udalbatzak. Horretaz gain, Labegaraietako poligono industrialaren garapena kudeatzeko elkarte anonimoa sortzea ere onartu zuen Udalbatzak.

Etxaniz askatu

Jose Mari Etxaniz preso bergararrak **18 urte** bete zituen espetxean **otsailaren 19an**. Etxanizen sumarioan ez dago odol deliturik eta 1995ean bete zituen ezarritako zigorraren hiru laurdenak. Etxanizen aldeko ekimenak ugariak izan dira urtean zehar, azpimarragarriena **azaroaren 7ko manifestazio isila**, Jose Mari Etxaniz Askatu Plataformak antolatua. Indar politiko eta sindikatu gehienek eta herriko beste hainbat talde, erakunde eta elkarteek bat egin zuten manifestazioarekin eta ideologia ezberdineko herritarrek ikusi ahal izan ziren bertan. Manifestazioa oso jendetsua izan zen.





“Lan gutxiago egiten badugu, ezin izango diogu eutsi kompetibitateari”

Mikel Lazpiur, enpresa gizona.
Otsailak 27.



“CCOO bere ezkerreko izaera galtzen doa eta berdin jarraitzeko oinarriak ematen ari da”

Juan Jose Azkarate,
Ezker Sindikalekoa. Martxoak 8.

25 ORDUKO LAN JARDUNAREN ALDE

Lanpostu gehiago sortzeko lan jarduna 35 ordotara murriztea -sektore publikoan 32 ordotara- eskatzeko sindikatuek apirilaren 23rako deitutako **ordubeteko lanuzteak** erabateko eragina izan zuen Bergarako industria nagusietan. Udaleko langileek ere bat egin zuten lanuztearekin. Ostalaritzan eta zerbitzuen alorrean, ostera, eragina ezberdina izan zen: batzuek ordubeteko geldialdia egin zuten, baina beste batzuk ez. Bestalde, gai honen inguruan sindikatuek aurkeztutako mozioa ez zuen onartu Udalbatzak. Hiruko gobernuak ezezko botua eman zuen; HBk alde bozkatu zuen.



Ordubeteko lanuztea. Sindikatuek ordubeteko lanuzterako deia zabaldu zuten apirilaren.



Herriko hainbat kale berriztu dira urtean zehar

Herriko hainbat kale berrizten ibili dira urte guztian zehar udaleko langileak. **San Martin ikastetxearen atzealdean, Ibaiondo kalean, Bideberrin, Usondo parkean, Iparragirre kalean eta Zabalotegin** argiteria eta estolderia berriztu eta zoruan asfaltu berria botatzen jardun dute. San Martin ikastetxearen atzealdean egindako lanak Aste Santua baino egun batzuk lehenago amaitu zituzten eta Udaletxearen atzealdekoak Pazkue-tan. Lan batzuk amaitzeke daude oraindik. Bestalde, **Iraburu eta Aranerekako** bizilagunek kaleak konpontzea eskatu zuten martxoan. Kaleok oso hondatuta eta zuloz beteta daudela eta Udalak erabat ahaztuta dituztela salatu zuten bizilagunek. Kale horiek eta **Ibarra kalea** aurki konpontzen hasiko dira.

ETXEBERRIA

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

EGIN ZURE OPARIAK ETXEBERRIAN EROSIZ ETA PARTE HARTU 200.000 PTA
ETA 100. 000 PTAKO EROSKETA-TXARTELEN ZOZKETAN

Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 76 12 65

■ Apirilak 26

Gipuzkoako Odol Emaleen elkarteak batzar orokorra egin zuen Bergaran. 700 bat odol emale elkartu ziren.

■ Maiatzak 8

Bergarako Udalak eta Irala zineko jabeek hitzarmen berria sinatu zuten zine aretoa zegoen orubeetan lokal komertzialak eta etxeak egiteko.

■ Maiatzak 12

CCOOfik irten eta ESKRekin bat egin zuen Ezker Sindikalak egoitza berria inauguratu zuen Artekalea 1ean.

■ Maiatzak 27

Victor Gomez 28 urteko bergararra lan istripuan hil zen, Zubillagako Chinchurreta S.A. enpresan beharrean ari zela.

■ Ekainak 10

Ortega Lara espetxe funtzionarioaren bahiketaz akusatuta zeuden lau lagunene kontrako epaiketa hasi zen Madriloko Entzutegi Nazionalan. Laurei, tartean, Jose Miguel Gaztelu bergararra eta Jose Luis Erostege antzuolarra, 32 urteko kartzela zigorra ezarri zien epaileak. Lauoi beste hainbesteko zigorra ezarri zien epaileak Iglesias Zamora bahitzaeagatik eta orain dela gutxi Legazpiko Goardia Zibilaren koartela erasotzeagatik ere epaitu dituzte.

■ Ekainak 10

Imanol Bolinaga senatore bergararrak Jose Mari Etxaniz preso askatzea eskatu zuen Madriloko senatuan.

protagonistak



Fermin Mendizabal

1993.etik Mayc-eko zuzendari orokorra da. Urtarrilean Gipuzkoako Merkataritza Ganbarako presidente aukeratu zuten. 53 urte, donostiarra. Victorio Luzuriaga edota Alfa-n aritutakoa.



Jose Mari Etxaniz

Urtarrilaren 28an 41 urte bete zituen. Otsailaren 19an kartzelan 18 urte. Zigorrenen 3/4 beteta ditu, baina espetxean darrai (Puerto de Sta. Maria).




Eudi baserria. Trazatu ofiziala onartuko balitz, Eudi baserria bota egingo litzateke.

ABIADURA HANDIKO TRENAK zeresan ugar sortarazi du. Bergarako Udalak eta Angiozarko Bailerako Batzordeak (3.400 sinadura bildu zituen) trazatua Angiozarko bailaratik egin beharrean Epeletik joatea eskatu zuten; Deba Garaiko Mankomunitateak, Deba Garaian apeadero bat jartzea eskatu zuen eta, bestalde, trena Angiozarko bailaratik joan beharrean Epeleko bailaratik joatea. HB Abiadura Handiko Trenaren kontra azaldu da.

Azkenik, Euskal Autonomi Erkidegoko merkataritza ganbarak trazatu alternatiboa proposatu zuten: Euskal Y-aren ordez, Euskal L proposatuz. Honebestez, trena ez litzateke Bergaratik pasatuko.

Hirugarren nunduari laguntza

Bergarako Udalak hirugarren mundurako 5 milioi eta erdi pasatxo bideratzea erabaki zuen uztailean. Bestalde, **Mitch hurakanak** urrian eragindako hondamendia jasan zuten Ertamerikako herrialdeei elkartasuna adierazi zuten Bergarako herriak. Udalak 3 milioi pezeta eman zituen eta Komite Internazionalistak, Fisc-Nikaraguak eta Oscar Romero solidaritate batzordeak kontu korronteak zabaldu zituzten (oraindik zabalik daude). Herriko ikastetxeetan ere hainbat ekimen bultzatu zituzten.




Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikulak, lan-prebentzio eta seinalaztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Zorionak eta urte berri on!



Telebista neurrian ikustea ona da. Arazo nagusia zera da: gaur egun ez garela libre aukeratzeko //

Mikel Usabiaga, teknologia berrien irakaslea. Maiatzak 22.



Correos bazter guztietara iristen da. Publiko den guztiak ez dauka gaizki funtzionatu beharrik eta pribatua ez da panazea //

Alberto Ormazabal, Correoseko ELAko delegatua. Ekainak 5.




Uhola erreka bideratzeko lanak

Uztail amaieran hasi zituzten Uhola erreka ubideratzeko lanak. Arregi aroztegitik Deba ibaiarekin bat egiten duen tartean dauden 470 metroetan erreka bideratzeko lanak direla eta, San Antonioko bidegurutzea, Martoko eta Zubiaurrerako bidea itxita dago harrezkero. Horrek hainbat arazo sortarazi ditu trafikoan. Bestalde, **azaroaren 24an** erreka ubideratzeko lanetan ziharduten Sobrino enpresako zazpi langile zaurituta gertatu ziren, aldatzeko eta lan-erramintak gordetzeko erabiltzen dituzten txabolak, lubiziak eraginda, behera etorri zirenean. Langileak zauri arinak eta hainbat kolpe eta traumatismo izan zituzten.

MENDE BERRIRAKO ERREPIDEAK

Beasain-Durango errepidea eta **Eibar-Gasteiz** autopista eraikitzeko epeak betetzea eskatu zioten irailean Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Diputazioari Deba bailarako eta Urolako 18 alkatek, tartean Victoriano Gallastegi eta Mikel Larea Bergara eta Antzuolako alkateek.

Azaroaren 25ean, bestalde, Eibar-Gasteiz autopista egin ahal izateko 32 hektareako lursaila desjabetu zuen Bergaran Gipuzkoako Diputazioak. Datorren urteko apirilean Bergaran hastekoak dira autopista egiteko obrak. Autopistaren kontrako iritzia ere entzun dira urtean zehar. Leintz-Gatzaga/Landa proposamenaren aldeko taldea oraingo errepidean hobekuntza sakonak egitearen alde agertu da.



ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek gabon zoriontsuak eta urte berri ona opa dizkie bezero guztiei.

Zurradero 6, behea. Telefonoa: 943 76 70 67
MOBILA ALDATU DUGU: 607 48 71 19

Ekainak 18

Elkarriren Bergarako taile-
rrak bultzatutako herritarren
foroetako elkarrizketa saioetan
parte hartutako kideak
mahaiaren inguruan, afari
batean, elkartu ziren.

Uztailak 1

Bergarako Udal-agiritegia-
ren fondoak Interneten bidez
kontsultatzeko Batador datu-
basea aurkeztu zen Udala
Artxihoan.

Uztailak 12

Deba bailarako gazte
asanbladak, Martinete taldeak
eta Eguzki eta Eki talde ekolo-
gistek antolatuta, Debarako
XVIII. bizikleta martxa egin zen.

Irailak 9

Egino Mallea etxearen fa-
txada nagusia eta beste hiru-
rak konpontzeko lanak hasi
zizuten. Lanen aurrekontua 10
milioi pezetakoa da.

Urriak 16

Bergara eta Arrasateko
botikek guardiako zerbitzua
herri bakoitzean eskaintzen
hasi ziren. Jaurilaritzako Osa-
sun departamenduak hala
aginduta, 1992.etik ematen
zuten zerbitzu bateratua bertan
behera laga behar izan zuten
botikariek. Hauek auzietara
eraman dute gaia eta Bergara
eta Arrasateko udalak
elkarrekin aurkeztu dira.


Urriak 5

Xabier Aizarna, Gipuzkoa-
ko Diputatu Nagusi eta Batzar
Nagusietako buru izandakoa
Angiozarren lurperatu zuten.



Koldo Lasa

Euskal Gastronomi-
a Akademiak urteko
sukaldari onena
izendatu zuen eta
Euskadi Gastrono-
mia Saria jaso zuen
otsailaren 4an.
Urrezko Sukaldari
ere izendatu zuten
ekainean Intxau-
rondoko VIII. Aste
Gastronomikoan.



**Julen
Narbaiza**

155 bazkide biltzen
dituen Bedelkar el-
karteko presidente
aukeratu zuten
martxoan. Narbaiza
pentsuak denda-
koa, 40 urte ditu.



KALE ISTILUAK SU-ETENAREN ATARIAN

Kaputxadun batzuek su eman zioten **abuztuaren 29an**, gauer-
dian, **Euskadiko Kutzak** Matxiategin duen bulegoko kutxazain
tomatikoari eta Arrese etxearen behean zegoen **La Caixa**ko bulego-
ari. Kalteak handiak izan ziren, batez ere, La Caixa bulegoan, eta
bat kiskalita eta hondatuta geratu baitzen. La Caixa gaineko etxea
oso hondatuta geratu zen eta ondoko etxetan keak beltztu egin
zuten paretak eta usaina egunetan ez zen desagertu. Udaltzuzak sal-
tu egin zituen erasoak eta "ekintza terroristatzat" hartu zituen. Besta-
de, kaltetuei elkartasuna adierazi zien. HBk ez zuen bat egin gober-
nu taldeak onartutako testuarekin.



**Kalitatezko
hezkuntza**

Miguel Altuna institutuak **ISO
9002 kalitate ziurtagiria** jaso
zuen **irailaren 4an** Donostiako
Miramar jauregian. Bergarako-
rekin batera, Tolosa eta Martute-
neko Lanbide Intitutuak izan dira
ziurtagiria jaso duten estatuko
lehendabiziko zentruak. Bestalde,
Iñazio Oliveri eta **Eneko Oregi**
Hezkuntza Sailburu eta Sailburuor-

deak Miguel Altuna institutua bisitatu zuten **urriaren 14an**.
Argazkian, Rosana Gutierrez eta Mertxe Laskurain irakasleak Jose
Mari Larrañaga zuzendariarekin, Miramarren.

SANTOS Irrati-TB

Masterreka, 2
BERGARA
☎ 943 76 26 10

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOAK

- *Elektragailuak*
- *Bideoa*
- *Sukaldeko altzariak*
- *Soinua*
- *Telebista*
- *Argiztapena*
- *eta Airtel telefono mobilak!*

URTE BERRI ON!

Gaur egun uste baino jende gehiago dago etxean mebatxuak edo tratu txarrak jasaten dituena. Badago beldurrez bizi den jendea //

Ines Etxeberria, Ongizate zerbitzuko teknikaria. Uztailak 3.

Jaurilaritza haustea ez zait ondo iruditzen. Nik tripartitoan sinisten dut: egonkortasuna eta elkarren arteko konbibentzia //

Alvaro Esparza, PES-EEko zinegotzia. Uztailak 10.



Babes ofizialeko 68 etxebizitza

Patxi Ormazabal Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuak eta **Victoriano Gallastegi** alkateak hitzarmena sinatu zuten **azaroaren 26an**, Urteagan babes ofizialeko 68 etxebizitza egiteko. 80 metro karratuko etxea, trastege eta garaje eta guzti, 7,5 eta 12,5 milioi artean kostatuko da. Jaurilaritzak 700 bat milioi pezeta inbertituko ditu etxeak egin eta ingurua urbanizatzeko.

EGIN-EN ALDEKO EKIMENAK

Egin egunkaria ordezkatuko duen *Gara* egunkaria kaleratzeko, Bergaran 17 milioi pezeta batzeko **Baietz Fundazioa** aurkeztu zen **irailaren 29an**.

Komunikabide talde berriari laguntzeko eta Eginen aldeko hainbat herri ekimen bultzatu dira azken hilebetotan.

HAURREN AHOTSA

Unicef-ek bultzatutako "Haurren ahotsa" kanpainaren barruan, bozketaren eguna izan zuten **azaroaren 21ean** Bergarako ikas-tetxeetako 8 eta 11 urte bitarteko ikasleek. Haurren eskubide nagusietatik euren ustez garrantzitsuenena aukeratu behar zuten haurrek eta Bergarakoek familiari eman zioten boto gehien (90), bakeak 86 jaso zituen eta osasunak 65. Guztira 364 boto jaso ziren.



Parte hartze handia izan zen urriaren 25eko hauteskundeetan.



BOZKETAK BAKEAREN USAINEAN

Euskal Herritarrok izan zen garaile Bergaran **urriaren 25eko Legebiltzarrerako hauteskundeetan** 3.334 botoekin. Bigarren indarra EAJ izan zen (2.787 boto); EAK, 1.248 boto lortu zituen, PSE-EEk 862, PPk 768 eta IU-EBk 305. Parte hartzea handia izan zen (%73) eta, horregatik, ia alderdi guztiek gora egin zuten bototan. Lizarra-Garaziko Akordioa sinatutakoek botoen %82,2a lortu zuten. Orain dela lau urteko bozketetan baino 1.500 boto gehiago batu ziren Bergaran.

Gabon egun zoriontsuak izan ditzazuela!!

Bidekurutzeta 6
Tf. 943 76 10 25

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Urte berri on!!

Urriak 5

Bost urtez itxita izan ondoren, Osintxuko haur eskolak atek zabaldu zituen berriz ere. 2 eta 3 urteko 6 ume ari dira bertan Irune Zelaia bergarar irakaslearekin.

Urriak 16

Jose Badiola "Joxe Itxumendi" hil zen Elosun 72 urte zituela. Herri Irratiko eguraldi gizona izan zen urte-tan eta horregatik oso ezaguna zen Bergara eta inguruan.

Azaroak 12

Euskal Herrian Euskarazeko bi kide bergarar epaitu zituzten Bergarako epaitegian erdarazko bide-seinaleak ezabatzeagatik. Fiskalak bakoitzarentzat ia 14.000 pezeta eskatu zituen.

Azaroak 15

Ricardo Saenz de Ynestrillas ultraeskuindarrak eta Alianza Por La Unidad de España taldeko bere jarraitzaileek Bergarako kaleak zeharkatu zituzten. Azaroaren 30ean, bestalde, "persona non grata" izendatu zuen Udalbatzak Ricardo Saenz de Ynestrillas HBren aldeko botuekin; beste alderdiak abstenitu egin ziren.

Azaroak 19

Deba Garaiko uren sanea-mendurako depuradora bat eta 1.800 metroko tunela egiteko 3.500 milioi pezeta onartu zituen azaroaren 19an Madrileko Diputatuen Kongresuak, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu jeltzaleak egindako jesticioen ondorioz.

protagonistak



Martin Garitano

Uztailaren 15ean Garzon epaileak Egin egunkaria itxi zuenetik, eginzaleen erreferentzia den Euskadi Información egunkariko zuzendaria. 37 urte. Egineko erredaktore burua zen.



Jesus Mari Plazaola

Otxandion irailaren 12an jokatu zen Euskal Herriko Artzain Txakurren XX-XII. Lehiaketa irabazi zuen "Artzai" txakurrekin. 41 urte ditu.



Bergarar ilustrera. Denek azpimarratu zuten Zabalaren gizatasuna eta jatorritasuna.

JOSE ANTONIO ZABALARI OMENALDIA

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak eta Bergarako Udalak Jose Antonio Zabala Bergarako alkate oihara omendu zuten **abenduaren 18an** Bergarako Udaletxeko Pleno Aretoan. Era berean, elkarteak argitaratzen duen "Egan" literatur aldizkariaren 50. urteurrena ospatu zuten. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kideak eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren omenaldi ekitaldian. Bergarako Orfeoioiak ere hartu zuen parte. **Mertxe Ibarbia** Zabalaren alarguna oroigarri bat jaso zuen Victoriano Galastegi alkatearen eskutik. Pleno Aretoa leporaino bete zen. Jose Antonio Zabala uztailaren 7an hil zen 78 urte zituela.



Bai Euskarari!

"XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari" kanpainaren barruan hainbat ekitaldi antolatu ziren abenduaren 18, 19 eta 20an. Kalejirak, jaialdiak, herri afariak e.a. Amaiera ekitaldian, kanpainari atxekimendua adierazi dioten **manifestua** irakurri zuen **Mikel Laskurain** aktoreak abenduaren 20an Plazan. Kanpainari ginda jartze-ko, Euskal Herriko bost futbol-zelai nagusietan, aldi berean, jaialdiak antolatuko dira abenduaren 26an.



Sukaldeak. Horma armairuak. Neurritara egindako altzariak. Ateak eta leihoak. Arozlanak.

Bergara ☎ 943 76 58 86

Urte berri on!!

Mitch-ek nekazaritza produkzio osoa suntsitu du eta horrek datozen urteetan gosea ekarriko du. Laguntza ezinbestekoa da //

Mikel Andueza, dominikoa
El Salvadorren. Urriak 30.

Irlandar eta euskal egoeren artean antzik bada. Baina ban, Katolikoak eta Protestanteak, guztiz banatuta daude //

Inazio Irigoien, "Anphoblacht"-eko argazkilaria. Azaroak 20.

URTEKO AUTO SALDUENAK

1997ko azarotik 1998ko azarora

- | | |
|----------------------------------|----------------------------------|
| 1. Opel Astra. 31 auto | 13. VW Golf. 13 auto |
| 2. Citroen Xsara. . . 26 auto | 14. Peugeot 406. . . . 11 auto |
| 3. Opel Vectra. . . . 25 auto | 15. Nissan Primera . . 10 auto |
| 4. Ford Escort. . . . 24 auto | 16. Audi A4. 9 auto |
| 5. Opel Corsa. 23 auto | 17. Renault Laguna. . . 9 auto |
| 6. Citroen Xantia. . . 20 auto | 18. Renault Clio. 9 auto |
| 7. Peugeot 306. . . . 20 auto | 19. VW Polo. 7 auto |
| 8. Renault Megane. 19 auto | 20. VW Passat. 5 auto |
| 9. Ford Mondeo. . . . 18 auto | |
| 10. Citroen Saxo. . . . 18 auto | GUZTIRA: |
| 11. Ford Fiesta. 15 auto | 327 auto eta 6 moto |
| 12. Seat Ibiza. 15 auto | <i>Iturria: Udala</i> |



Opel Astra.

TEMPERATURA ETA EURIA

Temperatura batzbestekotan emana dago; euria, kopuru absolutotan

HILEZ HIL		Egunik hotzenak	
	°C		°C
URTARRILA	8,9	Azaroak 22	-6
OTSAILA	9,6	Azaroak 23	-3
MARTXOA	11,2	Urtarrilak 23	-3
APIRILA	10,9	Urtarrilak 26	-3
MAIATZA	15,5	Azaroak 21	-2
EKAINA	18,06		
UZTAILA	19,53		
ABUZTUA	20,8		
IRAILA	18,6		
URRIA	13,4		
AZAROA	8,8		

Egunik euritsuenak		Batazbesteko euria	
	l/m ²		l/m ²
Urriak 8	50,8	1993	13,30
Azaroak 29	47,2	1994	14,37
Irailak 23	46,6	1995	13,89
Urtarrilak 19	46,5	1996	13,41
Maiatzak 3	43,8	1997	14,60
		1998	14,15

Egunik beroenak		Batazbesteko euria	
	°C		l/m ²
Abuztuak 9	40	1993	1.587
Abuztuak 8	39	1994	1.350
Uztailak 19	38	1995	1.240
Abuztuak 11	36	1996	1.758
Uztailak 20	36	1997	1.381
		1998	1.490

Iturria: Luis Mari Agirre



BANKINTER

Herri Lagunak 2
Telefona: 943 76 91 51 / 76 91 52

**GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU DENOI!**

Mailegu pertsonalak
Mailegu hipotekarioak
eta aurrezteko produktuak



KOLDO LASA

Dinastia luze bateko sukaldaria

47 urte ■ Euskadi Gastronomía Saria jaso du aurten
 ■ Intxaurrendoko Aste Gastronomikoan Urrezko Sukaldari izendatu zuten ■ Ozaetako Jauregian duen jatetxean ari da lanean ■ Euro Toques sukaldari elkarteko kidea

Dudarik gabe, adiskidetasuna bizitzako gauzarik garrantzitsuenetakoa da. Maitasuna inportanteagoa da baina, hala ere, ez dut adiskidetasunik gabeko amodioarekiko sinismen handirik. Adiskidetasuna landu, zaindu eta elikatu egin behar da egunetik egunera sasotsu egoteko. Arrazoi ezberdinegatik jaiotzen da adiskidetasuna: uste-kabeko topa egite bategatik, elkarrekin bizi izandako abentura bategatik..., auskalo! Hamaita arrazoi aurki ditzakegu.

Sukaldariok (eta gipuzkoarrok bereziki) elkarren lagun onak izateko tradizioa daukagu; askotan kolaboratzen dugu eta zoritxarren aurrean elkar defenditzen dugu. Gure ofizioa oso sakrifika-tua den arren, ahal izaten dugun apurretan biltzea gustatzen zaigu, elkarren berri izan eta gure inguruko kontuak komentatzeko.

Ofizio berekoa izanda, Koldo da adiskidetasuna eskuzabalki, modu samur eta argiarekin lantzen duen horietako lagun bat. Hainbat Lasatarren lagun izateko zortea daukat; ostalari dinastia luzea da eurena, hainbat sukaldari belaunal-

diz osatutakoa. Batzuk Gipuzkoan eta beste batzuk Bizkaian ari dira lanean. Beharbada gure adin gertuta sunagatik, Koldorekiko nire adiskidetasuna aspalditik dator eta urteak aurrera joan ahala sendotuz joan da.

Gizon dotore eta zuherra da Koldo, langilea eta bere langileen koordinatzaile bikaina. Hasiera batean jauzi kualitatibo arriskugarria gerta zitekeen proiektu mi-resgarri batean murgiltzeko ausardia izan zuen baina denborekin ikusi da bere indarrak ondo neurtu zutuela. Gaur egun sendotasun eta segurtasun inbidiagarriak lortu dituela esan daiteke.

Gure eremuan hain erroturik dagoen dinastia bateko sukaldaria izanik, lortu dituenak kontutan hartuz eta lagun moduan diadana estimagatik, lotsa piskat izan dut lerro hauek idazterakoan. Benetan Koldoregatik sentitzen dudana adierazteko gai izango ote nintzen galdetzen nion neurburuari. Hala ere, idatzibada ere, nire lagunari bese sarkada handi bat bidali nahi izan diot.

PEDRO SUBIJANA

Akelarre jatetxeko sukaldaria

NINIKA

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01

LOREAK MUNDU
OSOAN



INTERFLORA

loradenda

Gabon zoriontsuak demo!

Zorionak eta urte berri on!

MARGA

JANTZIDENDA

San Pedro 20 Tf. 943 76 05 37

ARREGI AROZTEGIA



SUKALDEAK

Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma armairuak

Tarimak eta Parketak

Neoprenozko juntadun

egurrezko leihoak

KAPRESA PVCzko leihoak



TAILERRA: Urteaga 20. 943 76 11 73

ERAKUSKETA: Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03

MARKIEGI autoak



FIAT

Alfa Romeo 

Leizeaga 1
(San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tf. 943 76 35 09
Faxa 943 76 56 76

Zabalik duzue dagoeneko Markiegi berria, Bergara eta ingururako **Fiat Zeta Alfa Romeoren agente berria**. Gure erakusketa ikustera gonbidatzen zaitugu. Zatoz eta ezagutu itzazu Fiat eta Alfa Romeo modelo berriak. IAT/ITVren parean gaude.

Zuen zain gaituzue!

ELUSU

ERAIKUNTZAK



Urte berria emankorra izan dadila denontzat!

• ERA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK

• ERREFORMAK

BASERRI eta JAURETXEEN ERREFORMETAN eta TXALETEN ERAIKUNTZAN espezializatuta gaude

Teilatuak
Fatxadak
Sukaldeak
Bainuak



Bulego aldaketa egin dugu

ORAIN Arruriaga 5ean gaude!

Tf. 943 76 45 50. Faxa: 943 76 51 45

Aitorri buruz lerro batzuk idazteko orduan, lagun eta pertsona moduan azaldu nahi izan dut, bere kirol jarduerari eta piloto karrerari buruz aski idatzi baita han eta hemen. Garaipenek kirolarrien beste kualidade batzuk estaltzen dituzte askotan, Aitorren kasuan bezala.

Aitor 1991. urtean ezaigutu nuen, biok Viveroko igoera prestatzen ari ginela.

Garai hartan nik motorrarekin korritzen nuen eta entrenamenduetan bere Peugeot 205 dieselari segitzen ahal egintzen nintzen. Oso trazadura arraroak egiten zituela iruditu zitzaidan (motorraren eta kotxearen trazadura guztiz ezberdinak zirela jakin izan nuen orduan) eta entrenamendu saioa bukatu ostean elkar ezagutu genuen. Oraindik mantentzen dugun adiskidetasuna oso inportantea izan da niretzat.

Urte batzuk igaro dira Viveroko igoera hartatik hona eta gure arteko adiskidetasuna haziz joan da. Kotxearekin korritzen hasi nintzeanean ere ahal zuen guztietan laguntzen zidan. Barke-ta batekin konpetitzen hasi baino lehen berarengana jo nuen laguntza eske eta esan behar dut bai bere familiar

eta bai Bergarako lagunek ere oso modu berezian tratatu nindutela. Aitor nire maisua zen eta berarengandik ahal nuen guztia ikasten saiatzen nintzen. Aldi berean, kotxea gertatzen zidan Aitorrek, berearekin baino arreta gehiago jarriz. Karretako entremendu saioetan trazadura eta garapen egoikienei buruz eztabaidatzen genuen eta karrera bakoitze-ko planteamendua ere goitik behera aztertzen genuen.

Berarengana jo nuen laguntza eske eta bai bere familiarak eta bai Bergarako lagunek ere oso modu berezian tratatu ninduten


Ez dakit zenbat kilometro egin dugun elkarrekin baina sekula ez gara haserretu. Berak eskaintzen zidan laguntzaren inguruan hitzegiten genuen askotan; laguntza horri esker egunen batean bera ga inditze ko

nuen aukeraz (adin berdinekoak gara biok) egiten genuen berba baina hau ez zen arazo bat guretzat, nahiz eta jendeak ulertu ez. Lagunak izan arren, karretaran piloto guztiok nahi izaten dugu irabaztea.

Espainiako txapelketa laugarren aldiz lortzeagatik, berriz ere Aitor zoriondu nahi dut. Etorkizunean ere onena opa nahi diot, bai berari eta bai Maferi eta Aitor txikiari.

LUIS CHILLIDA

Piloto ohia eta Aitorren managerra



AITOR ZABALETA

Bere barnean motorra duen pilotoa

36 urte ■ Aurten, laugarren aldiz, Espainiako Mendiko Auto Igoera txapelketa irabazi du ■ Lola BMW kotxea gidatzen du ■ 18 urte zituenetik ari da konpetizioetan

ARGAZKIA: BENITO CANTERO ETA AGUSTIN GURRUTXAGA

Zuzen-zuzenean etxera eramaten dizugu!

Martoko 32, behea **BERGARA**

Larrañaga
BANATZAILEA

Txanpaina, Errioxako ardoak, likoreak, Gabonetako saskiak...

Zorionak!

Tf. 943 76 45 94
Mobila 907 - 65 76 34

Urteari errepasok

Amaitzeaz dagoen urtean zehar albiste garrantzitsu asko izan dira gure artean eta gure mugetatik kanpo. Bergarako kazetariei albiste eta protagonista aipagarrienen inguruko iritzia eskatu diegu.

Galdetegia, EEBBek eta Britainia Handiak Irak erasotu aurretik egin genuen.

1998ko...

■ **Zein albiste nabarmenduko zenuke Bergaran, Euskal Herrian eta nazioartean?**

■ **Zein pertsonaia positibo eta negatibo nabarmenduko zenituzke?**

■ **Pertsonaiarik nabarmenena zein izan da?**



ANE MIREN LIZARRALDE
Euskal Telebista

Nahiz eta gehiegi izan ez, langabeziak behera egin du Bergaran eta hori positiboa da. Euskal Herrian, Egin-en itxiera, ETA-ren su-etena eta urriaren 25eko hauteskundeak izan dira albiste nabarmenentariakoak. Munduan, Marenen kasuagatik Barrionuevo, Vera, eta gainontzekoak kartzelaratuak izana, Micht hurakanak lagatako miseria eta Clintonen gorabeherek eragindako iskanbila azpimarratuko ditut.

Pertsonaia positibotzat, Irlandako bake prozesua martxan jartzeari ekin dion guztiak eta negatiboa, Mayor Oreja, ETAREN su-etena iragarri zenetik, prozesua oztopatzen ari delako. Urteko pertsonaia, beriz, Pinochet.

“Mayor Oreja, bake prozesua oztopatzen ari da ETAREN su-etena iragarri zenetik”



MARTIN GARITANO
Euskadi Informacion

Bergara mailan, urriaren 25eko hauteskundeetan normalizazio politikoren eta bakearen alde agertutako alderdiek herrian lortutako gehiengo ikaragarria aipatuko dut. Euskal Herrian, dudarik gabe, Lizarrako akordioa eta ETAREN su-etena eta, nazioartean, Ertamerikan gertatutako txikizioa, Mitch hurakanak “pobreak beti pobre” esaera egia dela erakutsi baitigu.

Urteko pertsonaien artean, Pinochet eta Lewinsky, guztion ahotan izan direlako.

Bestalde, pertsonaia positiboen artean, Arnaldo Otegiarekin geratuko naiz, negatiboena, Garzon, Eginen kontuagatik.

“Normalizazio politikoa eta bakearen aldeko alderdien gehiengo azpimarratuko nuke”



UME ETA HELDUENDAKO KLASEAK

Goizetan, eguerdietan eta arratsaldeetan

CAMBRIDGEKO AZTERKETETARAKO PRESTAKUNTZA BEREZIA
Goizez eta arratsaldez

Informazioa: Ibarraiz 31 Barruko plaza Tf eta faxa 943 76 03 53.

kazetarien eskutik



OLGA CASTRO
El Correo

Bergaran nabarmentzeko izan da Mikel Vicente-ren alde egondako herri mobilizazioa. Euskal Herrian, ETaren su-etena eta nazioartean zoritxarreko albistea: Mitch hurakanak eragindako milaka heriotzak.

Nabarmendu diren pertsonaien artean Aitor Zabaleta piloto bergararra aipatuko dut, izan ere Espainiako txapelketa 3 bider (aurten laugarrena) irabazi behar izan du Udalaren omenaldia jasotzeko.

Bartolin PPko zinegotzia pertsonaia negatiboa iruditu zitzaidan, bere bahiketaren plantak egiteagatik. Aldiz, hirugarren munduan lanean ari diren gobernuz kanpoko erakundeen lana txalagarria da.

"Bergaran Mikel Vicente gaztearen alde egondako mobilizazioa nabarmenduko nuke"



GERMAN LARRAÑAGA
El Listin (Dominikar Errep.)

Dominikar Errepublikan egonda, zaila egiten zait Bergarako albisteen bat nabarmentzea, ez dut jarraitu-eta bertako aktualitatea. Hala ere, Agustín Aranzabal Mundialera joan izana nabarmentzeko dela uste dut. Euskal Herrian, ETaren su-etena izan da albiste inportanteena, nazioartean ere sekulako oihartzuna izan baitu. Eta munduan, Mitch eta Georges hurakanek eragindako kalteak zoritxarreko albistek izan ditugu.

Bukatzeko, pertsonaien artean, Pinochet jenerala izan da, nire ustean, urteko nabarmenena.

Pertsonaia positibo bat aipatzekotan, Kofi Annan aipatuko dut eta negatiboa, berriz, Milosevic.

"Mitch eta Georges hurakanek eragindako kalteak zoritxarreko albistek izan dira"



JUAN ANTONIO MIGURA
El Diario Vasco

Batetik, Mikel Vicente gaztearen aldeko herri ekimena nabarmentzeko dela iruditzen zait. Bestalde, Mitch hurakanak kaltetutakoei laguntzeko Euskal Herrian jasotako erantzuna azpimarragarria da eta, azkenik, nazioarteko albisten artean, serbiarrek "garbitasun etnikoa" ren izenean, Kosovon izan duten joera aipatuko nuke.

Urteko pertsonaia Pinochet izan dela uste dut. Oraindik ere zeresan ugari emango du auzi horrek.

Bukatzeko, Jesus Gil pertsonaia guztiz negatiboa iruditzen zait; oraindik ere bere izaeraren ondorioak ordaintzen ari gara. Positiboa, berriz, Jose Sarago idazlea izan dela uste dut.

"Urteko pertsonaia Pinochet izan dela uste dut. Oraindik ere zeresan ugari emango du auziak"



NORA ASKARGORTA
Kazetaria

Bergarako herriaren erantzuna aipatuko dut. Gazte batek auto istripu baten ondorioz jasan behar izan zituen txertaketa eta gainontzekoei aurre egiteko, Bergarako herriak dirua biltzeko antolatutako gutzia. Euskal Herri mailan, berriz, ETaren su-etena eta mundu mailan, Pinocheten estradizioa, Eskoziaren autodeterminazioa eta Irlandako bake prozesua. Bestalde, Mitch hurakanak eragindako hondamendia jasan dutenei laguntzen izan diren erakunde eta pertsonak nabarmenduko nituzke.

Pertsonaia negatiboa, Pinochet. Positiborik, berriz, ez zait bururatzen.

"Bergarako herriak, gazte bati laguntzeko antolaturikoa azpimarratzekoa da"

Hondakindegia alternatiborako zaintzailea kontratatu behar da behin behinerako

Beharrezko titulazioa: eskola graduatua, Lanbide Heziketa 1 edo baliokidea.

Instantziak eta dokumentazio osagarria

ABENDUAREN 30eko 15:00ak BAINO LEHEN

Deba Garaiko Mankomunitatean aurkeztu beharko dira:

Arrasate pasealekua 5, behea. ARRASATE. Tf. 943 79 33 89 / 99.





JON ALTUNA "Oxan"
Euskadi Informacion

Herri mailan, Jose Luis Elkoro alkate ohiak dagoneko kartzelan urtebete egitea eta hauteskundee-tan EHk Bergaran lortuta-ko garaipena aipatuko nuke. Euskal Herri mailan, berriz, Lizarra-Garaziko akordioa eta, nazioartean, Irlandako bake akordioa ere oso albiste garrantzitsuak izan dira.

Urteko pertsonaien artean, Arnaldo Otegi, "euskal Gerry Adams", azpimarratuko nuke.

Bukatzeke, pertsonaia positiboan artean Euskal Labela deritzana (Maite Aristegi, Rafa Diez eta Jose Elorrieta) eta negatiboari dagokionez, beste hirukote bat: Garzon epailea, Mayor Oreja eta Mitch hurakana.

Pertsonaia negatiboari dagokionez, hirukotea: Garzon, Mayor Oreja eta Mitch hurakana"



JESUS KALBOETXEAGA
Extra

Etxanizen askatasunaren inguruan herrialde honen irrikak islatzen ditu. Lizarrako akordioak ere itxaropen eta ilusio prozesua ekarri du eta nazioartean, berriz, Mitch hurakana azpimarratuko nuke: Erta-merika mendebaldeko herrialdeen karidadetik bizi beharko da.

Garzonek Pinocheten prozesamenduan asmatu badu ere, euskal errealitatearen ezjakintasuna erakutsi du. Mahai Nazionala (Elkoro tarte) espexeratu, Egin itxi eta AEK zigortu nahi izatean. Pertsonaia positiboan Saramago izan da, injustizia salatzeari uko ez egiteagatik. Negatiboan: Mayor Oreja, bake prozesuari trabak jartzeagatik.

"Etxanizen askatasunaren aldeko adostasunak herrialde honen irrikak islatzen ditu"



JUAN LUIS BIKUÑA
Euskal Telebista

Oihartzun handirik izan ez duen arren, Koldo Lasak jasotako urrezko sukaldari titulua aipatuko nuke, nazioartean Bergararen izena urruti iristeko aukera zabaltzen du eta.

Bestalde, ETaren su etena eta negatiboan izan bada ere, Asiako krisi Asiaticoa eragindako ondorio ekonomikoak mundu zabalera hedatzearena. Pertsonaia nabarmenen artean, Ardanza lehendakaria bake plana mahai gainean ipintzeagatik eta Arnaldo Otegi bake prozesua bultzatzeagatik. Positibotzat, gobernu kanpoko erakundeek eta bolondresek isileko lana politikoen aurretik jarri dutelako eta negatibotzat, futboleko ultrak.

"Ardanza eta Otegi bake prozesuan protagonista garrantzitsuak izan dira"




MARTA MORAL
Cope Irratia

Eibar-Gasteiz errepedea eraikitzeak, Bergararentzat abantaila handia suposatuko du. ETaren tregua nabarmentzerako garaian, inguruko komentarioak soberan daude honek garrantzia berezia izan baitu. Bestalde, lehenago ala beranduago txerri guztiei iristen zaie San Martina eta horrela gertatu zaio Pinocheti.

Urteko pertsonaia nabarmenenetarikoa, Tony Blair izan da, guztia aldatu daitekeela frogatu baitu. Negatibo gisa, Aitor Zabalearen hiltzailea eta talde ultren partaidea guztiak. Pertsonaia positiborik bururatzeko ez zaidanez, Goma Espuma humoristak aipatuko ditut, barre algarak eragiten dizkirate eta.

"Lehenago ala beranduago txerri guztiei iristen zaie bere San Martin; adibidea, Pinochet"



ARKUPE
AHOLKULARITZA

**ZERGALARITZA, KONTADURITZA,
GENERALI ASEGUROAK**

Espoloia 12. 42 posta kutxa 20570 BERGARA
Tf. 943 76 26 09 - 76 31 19 - Faxe 943 76 26 09

1998ko...

- **Zein albiste** nabarmenduko zenuke Bergaran, Euskal Herrian eta nazioartean?
- **Zein pertsonaia positibo eta negatibo** nabarmenduko zenituzke?
- **Pertsonaiarik nabarmenena** zein izan da?



MIKEL LIZARRALDE
Euskaldunon Egunkaria

Bergara mailan, bake prozesua zabaltzeagatik J. L. Elkoro kartzelan egotearen albistea. Euskal Herri mailan, berriz, ETaren su etena, Lizarrako akordioa eta Kontseiluak bultzatutako Bai Euskarari kanpaina eta Mundu mailan Irlandako akordioa.

Urteko pertsonaia nabarmenena, Garzon epailea izan da, alde batetik Eginen istea erabakitzearen eta, bestalde, Pinocheten auzia bultzatzeagatik. Negatibotzat aukeratu dut Mayor Oreja, Euskal presoen gaian daraman politikagatik. Positibotzat, berriz, Stormonteko akordioan parte hartu zutenak.

"Urteko pertsonaia Garzon izan da erakutsi dituen bi ikuspegi ezberdinengatik"



MONIKA BELASTEGI
Kazetaria

Jose Mari Etxanizen alde herrian sortu den mugimendua eta hainbat alderdi politikok bat egitea aipatuko nuke. Euskal Herri mailan, Lizarrako akordioa eta nazioarte mailan, nahiz eta niri neuri garrantzitsua ez iruditu, Clinton eta Lewinskyren arteko harremanak ikusmin eta zer esan handia piztu du.

Pertsonaia negatiboa, Miguel Sanz UPNko presidentea aukeratu dut, euskarari dion maitasunagatik eta Nafarroa non kokatuta dagoen ez jakitzeagatik. Positiborik, berriz, ez zait bururatzen. Urtean nabarmendu dena, Federiko Krutwig, euskara eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik.

"Miguel Sanz UPNko presidentea Nafarroa non dagoen ez dakiela erakutsi du"



IÑIGO URRUTIA
El Pais

Lehenbizi, Bergara mailan, Orfeoak bere sorreraren 75. urteurrena ospatzea nabarmenduko nuke. Euskal Herrian, berriz, ez dago dudarik ETak irailean iragarritako su-etena izan dela notiziarik inportanteena. Eta, nazioartean, oraindik ere zeresan ugari emango duen Pinocheten afera izan da, nire ustez, alibiterik aipagarriena.

Urtean zehar nabarmendu diren pertsonaien artean, Londoneko "Lorden Ganbera" azpimarratuko nuke.

Azkenik, pertsonaiarik positiboena, Jose Saramago idazle portugaldarra, aurten Nobel saria eskuratu duena. Negatiboena, Pinochet-en semea.

"Nazioartean, oraindik ere zeresan ugari emango duen Pinocheten afera aipatzekoa da"



TERESA SALA
Kazetaria

Bergaran, Etxanizen aldeko plataformak lortu duen erantzuna azpimarratuko nuke. Euskal Herrian, Lizarrako akordioa, eta nazioartean, Micht hurakanak eragindako kalteak

Pertsonaia negatiboa Garzon epailea aukeratu dut. Eginen ixtea erabaki eta baimentzeagatik eta era berean, HBko Mahai Nazionalaren inguruko portaragatik. Positiboak, berriz, Euskal Herriko presoen senideak, sufritzen ari diren dispertsioa eta honen ondorioak jasangaitzak baitira. Urteko pertsonaia Clinton izan da, alde batetik Lewinskyren gora behereagatik eta bere destituzioa atzeratzeko Golko gerran izan duen jokaragatik.

"Euskal preso senideak, dispertsioaren ondorioz sufritzen ari diren egoera jasangaitza da"

ONDO PASAU
GABONAK!



ERREGE BEZPERAKO
menu bereziak

ZATOZTE KOADRILAN!

San Anton auzoa Tf. 943 76 30 24

Urteko albisteak

Kirolak

■ Urtarrilak 18

Juan Aldaik irabazi zuen San Antoneko krosa. 7,5 kilometro egiteko 25 minutu eta 30 segundu behar izan zituen. Emakumeetan Amaia Mazorriaga izan zen onena eta betera-noetan, ostera, Aitor Eraña. 24 lagunek hartu zuten parte lasterketan.

■ Urtarrilak 30

Xabier Azkarate antzuolarrak 3. postua lortu zuen Reino-sako Alto de Campoon jokatu-tako Espainiako neguko triatloi txapelketan. 10 kilometro korrika, 25 bizikletan eta 10 eskia-tzen egin behar izan zituen.

■ Urtarrilak 19

Ion Sanchez, Eibar futbol taldeko jokalaria bergararra, Espainiako 15 urtez azpiko selekzioerekin astebetetz entrenatu zen, Estatu osoko beste 24 jokalarirekin batera.

■ Otsailak 14

Aitor Delariberette Estatu mailako Ballantines Snowboard Ziruituko bigarren proba jokatzen ari zela, La Masellan (Katalunia), jausi, eta pinu baten kontra jo zuen. Belauna hautsi zitzaion eta otsailaren 18an operatu zuten Donostian.

■ Otsailak 7

Pirenan, txakurrek tiratuta-ko trineoekin egiten den Estatu mailako probarik garrantzitsue-nean, 20. postua lortu zuen Axen Garitano bergararrak.

■ Otsailak 8

Antonio Merino korrikalari antzuolarrak Lizarran jokatuta-ko Euskal Herriko kros txapelketan bigarren postua lortu zuen.



GUTXIGATIK TXAPEL BARIK

Jokin Etxanizek eta **Aitor Elkorok** eskuz binakako txapelketako finala azken tautuan galdu zuten Unanue eta Errastiren kontra. **Otsailaren 21ean** jokatu zen finala Atano III.a pilotalekuan. Bergararrak eta elgetarrak txapelketa bikaina egin zuten, baina zorteak ez zien gehiegi lagundu finaleko egunean, azkenean 22-21 galdu baitzuten.




Kirolari onenak

Aitor Zabaleta (eskuman), **Lokatza Ziklismo Eskola** eta **Andoni Larrañaga** (ezkerrean) Poleko kidea eta Gipuzkoako Mendiko Federazioko presidentea 1997an egindako lanagatik sarituak izan ziren. **BERRIGARAK** eta **Udal Kirol Zerbitzuak** antolatutako sariketan herriko kirol taldeetan nabarmendu ziren kirolarien lana ere aitortu zen. Sari banaketa Kultur Etxean egin zen **urtarrilaren 30ean**.



Estatu mailako gimnastarik onenak Euskal Herrikoak dira eta talde mailan Espainia eta Errusiak dute mailarik onena //

Helena Herreros, gimnasia erritmiko entrenatzailea. Apirilak 30.



Realean etxeko jokalaria ez da ondo baloratzen. Beti pentsatzen dugu kanpokoak hobea dela eta gehiago pagatzen zaio. //

“Gaztelu”, Realeko jokalaria ohia. Maiatzak 15.

SASOI BETEAN

Aerobiton proba jokatu zen **martxoaren 13an** Labegarieta Kiroldegian. Boli gimnasioko Idoia Moreno, Amaia Carrillo eta Oihana Iturralde eta Giartzuko Gemma Otaño, Carmen Palacin eta Ana Valor aritu ziren monitore lanetan. 120 bat aerobic zalek hartu zuten parte. Bestalde, **maiatzaren 22an** Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako aerobic saioa izan zen Udal Pilotalekuan Nuria Rodriguez eta Nuria Serranoren aginduetara. **Azaroaren 24an**, 240 aerobic zale bildu ziren kiroldegian Giartzu gimnasioak antolatutako Step maratoi herrikoian.



Bat, bi, hiru, lau... 120 aerobic zale bildu ziren martxoaren 13an Labegarieta kiroldegian.

Munduko maratoi txapeldunarekin

Bergarako korrikalariak ez zuten hutsik egin **martxoaren 29an** jokaturako **Azpeitia-Azkoitia maratoi erdian**. Guztiek maila bikaina erakutsi zuten eta ez zuten **Abel Anton** munduko maratoi txapeldun eta probako irabazlearekin argazkia ateratzeko aukera galdu.



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

FEMUR

Kale Zaharra 62. 20560 OÑATI
Tf. 943 71 80 80. Faxes: 943 71 80 45

Nafarroa etorbidea 9. 20500 ARRASATE
Tf. 943 71 24 25. Faxes: 943 71 22 98

Santa Krutz 25. 20550 ARETXABALETA
Tf. 943 71 24 11. Faxes: 943 71 21 19

■ **Otsailak 21**

Urigoitia eta Mancebo elgoibartarrek irabazi zuten Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako Pala Txapelketako finala, Alberdi eta Gallastegi bergararrei 35-18 irabazi ondoren.

■ **Otsailak 28**

Lokatza Ziklismo Eskolak 98ko denboraldirako taldeen aurkezpena egin zuen Usondo parkean. Lau talde aritu dira aurten Euskal Herriko errepide-etan korritzen: Biciprecisión Igartua (infantilak), Caravanas Oñate (lehen urteko kadeteak), Sumofic (bigarren urteko kadeteak eta jubenilak). Luis Miguel De Benito, Ion Ander Garitano, Xabier Gabilondo eta Iker Larrea, Mikel Lazpiur aritu dira zuzendari lanetan.

■ **Martxoak 20**

Gutierrez eta Aranzeta BKEko junior mailako pilotariak Areetako Pilota txapelketa irabazi zuten, finalean 22-10 Lemoaren aurka nagusitu ondoren.

■ **Martxoak 22**

Juan Manuel Garate Iberdrola taldeko irundarrak irabazi zuten XXIV. Gorko Txirindulari Igoera, sprintean Jonathan Hall (Banka) eta Peio Arreitunandiarri (Olarra) nagusitu ondoren. Irabazleak probako errekorra hautsi zuten, 8,5 kilometro egiteko 20 minutu eta 33 segundu behar izan zituen eta. Ion Unamuno (Borny Jay) izan zen lehen bergararra. 31. postuan sailkatu zen, 22 minutu eta 50 segunduko denbora eginez.

protagonistak



Ander Agirre

Sumofic taldeko 17 urteko txirindulariak Uzarragako lasterketa irabazi zuen martxoaren 29an. Bestalde, maiatzaren 9an jokatu zen Arantzazuko XXIV. txirindulari igoeran laugarren postua lortu zuen.



F.J. Rodrigo, "Piti"

28 urteko bergararrak BKE laga zuen, azken urteetan futboleko talde nagusian aritu ondoren. Maiatzaren 8an omenaldia jaso zuen Agorrosinen.



MAHONEROAK PREFERENTERA

Bergara Kirol Elkarteko futbol talde nagusia erregional mailako txapelkun geratu zen **apirilaren 4an Seguran** eta, ondorioz, preferentera igotzea lortu zuen liga amaitzeko hiru jardunaldi geratzen zirenean. Nietoren mutilek denboraldi bikaina egin zuten eta joan zen urtean galdutako maila berreskuratu zuten. 1998-99 denboraldian indartsu hasi dute eta une honetan bigarren sailkatuta doaz, Aitor Mendiren atzetik.

Muru-ren urtea

Iker Muruamendiarazek eta **Unai Idiakez**ek senior mailako Gipuzkoako pilota txapelketa irabazi zuten apirilaren 3an Udal Pilotalekuan. Bestalde, Ikerrek Elgetako 23 urtez azpikoentzako lau eta erdiko txapelketa irabazi zuten uztailean Iban Otaegiri 22 eta 13 irabazi eta gero. Duda barik Ikerren urtea izan da aurtengoa, pilota txapelkun geratu baitzen Mexikoko mundialean. Azaroaren 14an Bergarako herriaren omenaldia jaso zuen Udal Pilotalekuan. **Haritz Berraondo** antzuolarrak ere hartu zuen parte mundialean.



Barrenkalea 35
Tf. 943 76 24 89

Iturkintza • Berogintza • Bainuak


Laskurain

URTE BERRI ON!!



Mundialeko arazo nagusia prentsaren presioa izan da eta oraindik ere sekulakoak jasan beharko ditugu, batez ere entrenatzaileak //

Agustin Aranzabal, futbolaria.
Uztailak 5.



Bere garaian ia bebartuta joan ginen Alti-ra. Orain, Aspe-rekin, monopolioa hautsi egin da eta baldintza hobeeekin fitxatu dugu //


Jokin Etxaniz, pilotaria.
Irailak 4.



Jalabert eta Olano. Frantziarrak irabazi zuen Bergaran. Anoetarrak Euskal Bizikleta.

TIRRINDULARI ONENAK BERGARAN

Euskal Bizikletako hirugarren etapa Bergaran amaitu zen. Fraisko-zuriko helmugan **Laurent Jalabert** izan zen azkarrena eta berak irabazi zuen etapa. **Abraham Olanok** liderraren elastiko urdina jantzi zuen eta, azkenean, berak irabazi zuen Arraten. Jaien atarian, ikusmin handia sortarazi zuen etapa bukaerak eta hurrengo eguneko irteerak.



Goi mailako gimnastak

Ariznoa taldeko Gimnastak **Gipuzkoako txapelkun orde** geratu ziren **maiatzaren 17an** Bergaran jokaturako Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko txapelketan. Leire Lasa, Eneritz Olabarria, Ane Miren Fernandez, Jaione Igartua, Aintzane Narbaez eta Azahara Gonzalez izan ziren Bergarako ordezkariak. Bestalde, **ekainaren 7an** Bergaran jokaturako **Euskadiko txapelketan** bikain aritu ziren Bergarako gimnastak. Ane Miren Fernandezek eta Jaione Igartuak bigarren postua lortu zuten eta Espainiako txapelketarako sailkatu ziren. Aintzane Narbaiza eta Azahara Gonzalezek, berriz, zortzigarren postua lortu zuten. Ane Miren Fernandezek eta Jaione Igartuak brontzezko domina eskuratu zuten **uztailean Gijonen** jokaturako **Espainiako txapelketan** Euskadiko selekzio-arekin.



Ipiñarri zerrategia S.L.

MUEBLEAK. AROZGINTZA. ERAIKUNTZA. ENBALAJEA

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

■ **Apirilak 4**

Pako Vallejo eta Xabier Albiñak irabazi zuten Erramu Zapatuan Osintxun jokaturako Frontenis Txapelketako finala, Uribarri eta Gallastegiri 25 eta 16 irabazi ondoren.

■ **Apirilak 5**

Goyo del Real madrildarrak irabazi zuten Gorlan jokatutako V. Txakur Leren Lasterketa.

■ **Apirilak 5**

Eneko Iturrospe, piraguista gaztea Gipuzkoako txapeldun orde geratu zen Bidasoa ibaian.

■ **Maiatzak 29**

Gorka Martin, pilotari bergararrak Bergara Hiria IV. Pilota txapelketan bigarren geratu zen finalean galdu eta gero.

■ **Ekainak 6**

BKEko futbol saileko bigarren mailako jubenilak Gipuzkoako txapeldun orde geratu ziren, finalean Eibarren kontra luzapenean bat eta huts galdu eta gero.

■ **Ekainak 19**

BKEko zuzendaritza batzordeak batzar orokorra egin zuen. Iñigo Zaitetik azken urteetan presidente lanean jardun ondoren elkartea laga egin zuen.

■ **Ekainak 20**


Begarako Lagunak Areta Futbol Elkarteko nesken taldeak Arrasateko Hiria I. Areta Futbol Txapelketa irabazi zuen San Andres Indo taldeari 9 eta 0 irabazi ondoren.

protagonistak



Imanol Cabanillas

13 urteko bergararra Realak fitxatu zuen ekain erdialdean. Ekainaren 13an debutatu zuen elastiko txuri-urdinarekin. Imanol Cabanillasek aurrean jokatzen du.



Jesus Mari Garcia

Kulturista bergararrak Estatu mailako Olinpia txapelketan 2. postua eskuratu zuen ekainean. Euskadiko txapelketan, oster, laugarren postua lortu zuen.



Gorlan ere onena. Bereinkua eta Lebeitiren aurretik sailkatu zen Gorlako igoeran.

LAUGARREN ALDIZ TXAPELDUN

Aitor Zabaleta erraztasun handiz nagusitu zuen ekainaren 7an jokatutako **Gorlako VIII. auto igoeran**. **Alberto de Lucas** eta **Javier Breña** bergarrek zortzigarren eta bederatzigarren postua lortu zuten. Beste bergararrak, **German Hernandezek**, entrenamendu saioan istripu txiki bat izan zuen eta ezin izan zuen lasterketan parte hartu. Aitor Zabaletak Mendiko Auto Igoeretako **Espainiako txapelketa** eskuratu zuen **urriaren 25ean** Ibizan jokatutako azken proban Vilariñoren aurretik nagusitu ondoren. Bergararrak **Euskadiko txapelketa** ere lortu zuen **azaroaren 29an**.



Eskola kiroleko sariak

Eskola kiroleko sari banaketa egin zen **maiatzaren 29an** San Martin plazan, Bitorianatxo jaitsi ostean. Herriko ikastetxeetako eskubalo, saskibalo eta futbol talderik onenek jaso zituzten sariak.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zorionak eta urte berri on!!

Fraiskozuri 5 Tf. 943 76 13 41 - 76 18 42
Matxiategi 5 Tf. 943 76 57 41 - 76 57 42



Eskubaloiak indarririk ez dauka Britainia Handian. Diru laguntzak gutxi dira. Geuk ordaindu behar izaten ditugu aseguriak-eta //

Aritz Aranguren,
eskubaloijokalaria. Irailak 18.



32 urte ditut eta lehenengo aldiz korritu nuen Behobia-Donostia eta nire ardura amaitzea zen. Gustora nintzen helmugara iristean //

Maite Toledo, Behobia-Donostia
lasterketan. Azaroak 13.

SHOTOKAN

karatean dabilen Bergarako taldeak sari ugari jaso ditu urtean zehar: Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan **Aitor Delariberette** eta **Mikel Arakistainek** 2. eta 4. postua lortu zuten; Gipuzkoa mailako eskolarretan **Oier Tola** hirugarren, **Mikel Larrañaga** laugarren eta **Unai Zabarte** 5. sailkatu ziren; Pablo Pera ere primeran aritu zen Euskadiko selekzioarekin; Kluben arteko txapelketan, Bergarako taldea 2. sailkatu zen. **Mikel Arakistainek** Euskadiko Kopako 7. jardunaldia irabazi zuen junior mailan urrian Euskadiko selekzioarekin.



Finalistak. Bar Canalejas eta Mongatxurrak, goian eta Gu Geu eta The Road Island, behean.



Futbitoko finalak

Bar Canalejas taldeak irabazi zuen **Labegarrietako Futbito txapelketa**, ekainaren 6an jokaturako play-offetako finalean Mongatxurrak taldeari 6 eta 2 irabazi ondoren. Mongatxurrak-ekoak **Kopako** finalera ere heldu ziren, baina hura ere galdu egin zuten, 3 eta 2, **Manitou** taldearen kontra. Finala ekainaren 13an jokatu zen. Nesketan **Gu Geu** taldeak irabazi zuen futbito txapelketa The Road Island taldeari finalean 6 eta 1 irabazi eta gero.



COMERCIAL BRUNET

Ozaeta 11, BERGARA
Tf. 943 76 31 52

- Motozerrak
- Sasiak moztekoak
- Motoatxurrak
- Belarra moztekoak
- Generadoreak
- Bonbak
- Inausteko era guztietako tresnak



S a l m e n t a - K o n p o n k e t a - A l k i l e r r a

■ **Uztailak 14**

Beti Bustik antolatutako Saturrarán-Deba itsas bidaian 60 bat lagunek (15 Bergarako-ak) hartu zuten parte. Lehenengo heldu zen piraguitak 30 minutu behar izan zituen Debako hondartzara heltzeko.

■ **Uztailak 24**

Bildurbarek Opel/Lam mutiletan eta Potzu Ta Zapaburuak eta Baleike nesketan izan ziren ekain eta uztailean jokaturako Ipintzako Futbol Txapelketako irabazleak.

■ **Urriak 3**

Iker Azagirre 13 urteko bergararrak Berrizeko lau eta erdiko pilota txapelketa prestijiosua irabazi zuen infantil mailan. Finalean 18 eta 12 nagusitu zitzaion Garciari.

■ **Urriak 2**

Rachael Olabarria futbito jokalaria Euskadiko areto futboleko selekzioan jokatzeko deitu zuten. Abenduan, ostera, Gipuzkoako selekzioarekin Espainiako txapelketa aritu zen.

■ **Azaroak 21**

Shotokan-karateko Euskadiko selekzioak Miguel Altuna institutuan egin zuen entrenamendu saioa. 60 lagun bildu ziren, tartean Pablo Peña eta Mikel Arakistain bergararrak.

■ **Azaroak 29**

Aitor Zabaleta auto pilotuak Jaizkibeletako neguko igoeira irabazi zuen eta Euskadiko Mendiko Auto Igoeren Txapelketa eskuratu zuen. Bigarren Carlos Egozkue sailkatu zen.

profeta
gonistak



Karlos Arnaiz

Bergarako postetxeko arduraduna k BKEko presidente kargua hartu zuen uztaile amaieran Iñigo Zaitegiren orde. Elkartearen zorrari nola edo hala aurre egitea da bere erronka nagusia.



Jose Mari Zezeaga

Jose Mari Zezeaga eta Jokin Etxaniz pilotari bergararrek Alti enpresarekin 3 urte eman ondoren, Aspe enpresa sortu berriarekin fitxatu zuten udan.



Gaztetxoentzat sariak. Sari ugari banatu ziren San Martin Herri Krosean.

SAN MARTIN HERRI KROSA jokatu zen irailaren 18an. Bertan, 50 korrikalari aritu ziren lehian. Lasterketa herrikoi izanik, maila ugari bereiztu ziren eta sari asko banatu ziren. Gipuzkoako beste hainbat herritako lasterkariek ere hartu zuten parte. Senior eta beterano mailetan **Manu Hurtado** azpeitiarra eta **Aitor Eraña** bergararra izan ziren onenak.



Behobiarako prestatzen

Behobia-Donostia lasterketa prestatzeko 55 korrikalari bildu ziren urriaren 24an Behobia Txikian. Bergara eta Soraluze arteko joan etorria egin ostean Iraho jabetxean elkartu ziren mahaiaren inguruan. Bestalde, azaroaren 8an jokatu zen Behobia-Donostia lasterketa 93 bergararrek eta 23 antzuolarrek amaitu zuten. **Ion Aranzabalek** egin zuen denborarik onena (01:11:45) 101. postuan sailkatuz. Antzuolarren artean, **Julen Garitano** izan zen onena (01:16:15), 254. postuan.



Urte berri on!

GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



Herri-kirolak ospe txarra dauka, apustuen munduarekin lotzen da eta. Jendeak herri-kirola ezagutuko balu, geiago maitatuko luke //

Iñigo Almorza, herri-kirolaria.
Azaroak 27.



Xakea kirola eta zientzia da. Profesionalak, fisikoki ondo prestatzen dira; tentsioaren eraginez, txapelketetan 8 kilo galtzen dute //

Edurne Zabaleta, Xake taldekoa.
Abenduak 11.



ONGI ETORRI, TXURI-URDINAK!

Realeko talde nagusia eta zuzendaritza batzordeko kideak, Luis Uranga presidentea buru, Bergaran izan ziren abenduaren 16an 1998-99 denboraldiko poster ofiziala aurkezteko. Goizean Agorrosinen entrenamendu saioa egin zuten, herriko haurren aurrean. Sekulako jendetza bildu zen

Agorrosinen eta neska mutikoen artean zoramena nagusitu zen. Eguerdian Realeko poster ofiziala aurkeztu zen Udaletxean eta, ondoren, Sagarpera hurbildu ziren Realeko jokalariei eta buruak mokadu bat hartzera. Bergaran Real zale pilo dagoela argi geratu zen.

Barrenkalea 16
Tf. 943 76 20 66





IKER MURUAMENDIARAZ

Pilotari mundiala Mexikon

Ugarrixa baserrikoa ■ 21 urte ■ Mexikoko Munduko Pilotari Txapelketan binakako txapelduna izan da, Patxi Ruiz naparrarekin batera ■ BKEko seniorretan ari da jokatzeko

ARGAZKIA: BENITO CANTERO ETA AGUSTIN GURRUTXAGA

Txiki-txikitatik gustatzen zitzaion pilota Ikerri eta, horregatik, hamar urte zituela, beste askoren antzera, Bergarako pilotari eskolan hasi zen. Hasi batean, gaitasun berezirik erakutsi ez bazuen ere, laister hasi zen bere adineko mutikoen artean nabaritzen. Honela, hamabi urterako Deba Garaiko binakako alebiren txapelketan nagusitu egin zen, bere lehenengo txapela izan zen hurreneko.

Garai hartan atzelari postuan jokatzeko zuten, eta orduko mutil txiki, argal hura, indar handirik erakutsi ez arren, azkar hasi zen pelotarako egokiak ziren bi eskuak erakusten. Infantil mailara pasatu zenean, berriz txapelketa bera irabazi zuen eta maila honetan hasi zen nabarmentzen bere egokitasuna aurreko kuadroetan, bertan jokatzeko baitzuen maila honetan. Infantil mailan, bakarka jokatzeko ere hasi zen eta erakutsi zuen espezialitate honetan ere bazuela etorkizunik. Berrizko txapelketa irabazi zuen lau terdiaren barruan. Indar falta nabaritu arren, bere pilotari kastak ondo tapatzeko zuten debildade hori. Maila honetatik aurrera hasi zen bere izena entzuna izaten.

Bergarako pilota eskolan hasi zen. Hasieran, gaitasun berezirik erakutsi ez bazuen ere, laister hasi zen nabaritzen

Kadete mailara pasatutakoan ere bere joku ona eta gorakada nabarmena ikusi genuen; Euskadiko binakako txapelketa eta Elgetako 4 1/2koa eskuratu zituen Ikerrek. Bere gorputz aldaketak nabaritzen hasi zen orduan mutil txiki hura handi egiten hasi zen. Jubenil mailara pasatu zenean ere txapelketa mordoxka irabazi zituen, garrantzitsuenak Euskadiko banakako txapelketa eta Cafe Baque-ko azpitxapelketa.

Banakako txapelketek dituzten exigentzia fisikoen ondorioz pixka bat erre egin zela esango nuke eta bere gorakadak geldionez izan zuten ondorengo pare bat urtetan. Berak zuten pilotari afizio handi hori esker jarraitu zuen gogor eta fin entrenatzen.


Urte txar haren ondoren hasi zen berriz gora egiten eta azken urte hau izan da bere urterik borobilena. Luze egia litzateke irabazitako txapelketa guztiak izendatzea; garrantzitsuenak, Elgetako banakako 4 1/2ko txapelketa, Espainiako binakako Errege Kopa eta bere lanaren ordainik onena, Mexikoko Munduko Txapelketa. Hau mutil mundiala!

REYES AZKOITIA
BKEko pilota sailleko

Gabon egun zoriontsuak izan ditzazuela!!

MIKROBUS, TAXI ETA KAMIOI ZERBITZUAK
TXURRUKA AUTOAK S.L.

AITZITURRI 5 SAN LORENZO. ☎ 943 76 12 36. BERGARA



BERGARA Kafea-Pentsioa**

EGUNERO

goizeko 7etatik zabalik.

**Gosariak, pintxoak,
bokatak eta meriendak.**

Logelak.



Logelak

Bidekurutzeta 34. Tf. 943 76 47 23



Kafetegia

Ondo pasau gabonetan!



50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano
eta butano eta berogailu
instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

Gabon zoriontsuak
izan ditzazuela!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga
Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA



Ehunak eta oihalak

Tapizeriak

Kortinak

Nordikoak

Era guztietako etxerako gaiak

DENDA BERRIA!

**Gotzon
Agirrezabal**

Tf.- 943 76 72 52 -Faxa

ORDUTEGIA
astelehenetik zapatara:

10:00-13:00

eta 16:00-20:00.



Amillaga 5 • BERGARA • Renault-en ondoan

kontuola...



URTEKARIA 98




Ihauterietan, otsailean, kalean gora eta behera aritzeko sorgin dantza ikasi zuten herriko mutilek.

Martxoaren 30ean, 96 urte bete zituen Juana Laskurainek, emakume antzuolar zaharrenak.

Apirilean Udalak Kostarratzun sartu zuten zuhaitzak aizkoraz eta motozerraz moztu zituzten.

San Isidroan, maiatzean, besteak beste, Nartxi Saralegi aizkorarekin.



kontuola urtekaria 98

*Antzuolako
hamabostekaria.
28 zenbakia. Urtekaria.
1998ko abenduaren 24a.*

Idolaz elkartea, Antzuola
Kazetaria:
Marijo Deogracias
Maketatzailea:
Iñaki Iturbe

Erredakzio kontsellua:
Gotzon Iparragirre
Patxi Kortabarria
Jone Larrañaga
Testuen zuzenketak:
Maripi Laskurain
Lierni Legorburu
Telefonoa eta faxa:
76 65 08,
Herri ikastetxea.

Antzuolan aurten gertatutakoaren laburpena egin nahi izan dugu urte amaierako ale berezi honetan. Albisteak, kultura eta kirola gaiak abiapuntu harturik, 1998 urteko pasarte batzuk ekarri ditugu gogora.

Urte berri on Kontuola egiten dugun guztion partez!

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko taldea

Ekainaren 12an aurkeztu zen herrian Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako plataforma. Iazko neguan hasi ziren biltzen hainbat antzular, ahalik eta herritar gehienen eskaera baten inguruan lan egingo lukeen taldea eratzeko. Ekainean egin zuten aurkezpen ofiziala, sinadura bilketa batekin. Taldeak hainbat ekitaldi egin ditu urtean zehar. Antzuolako jaietan argazkian ikusten den pankartari puxikak lotu zizkioten eta puxiketari "Euskal Presoak Euskal Herrira" zioten paper-tirak lotu zituzten ekimenarekin bat egin zuten herritar askok.

Abenduaren 22an, hamabost minutuko isilunea egin zuten Herriko plazan, Patxi Olabarriaren askatasuna eskatzeko. Plataforma martxan jarri zenean, 3 antzular ziren Espainiako kartzeleetan sakabanaturik. Orain, lau dira. Karmen Irizar, martxoaren 19an eraman zuten eta Soto del Realeko kartzelan dago.



*Herriko jaietan
uztailaren 17an
egindako ekitaldia.*

SURPE
taberna

TRAGO BAT
hartzeko tokirik
APROPOSENA
Herriko plaza 2, ANTZUOLA
943 76 64 97

- PINTXOAK
- BOKATAK
- KAZUELITAK

Kalebarren 17, ANTZUOLA
943 78 70 68

LARREA
TABERNA

Gabonetan ere Pollero, Patxi, Eitzikorta, Karmen eta EUSKAL PRESOEKIN BAT!

URTEKO DATUAK

HILDAKOAK

Antonio Etxaniz Mazorriaga.
Otsailak 11, 75 urte
Jose Mari Eguren Aranbarri.
Otsailak 11, 53 urte
Abelino Laskurain Larrañaga.
Otsailak 17, 77 urte
Maria Larrañaga Enekotegi.
Otsailak 22, 85 urte
Felisa Etxeberria Bizkalatza.
Martxoak 1, 81 urte
Marina Peña Kortabarria.
Martxoak 4, 66 urte
Patxi Lete Laskurain.
Apirilak 4, 65 urte
Juan Cruz Peña Kortabarria.
Apirilak 30, 88 urte
Jose Mari Gabilondo Aranzabal.
Maiatzak 22, 45 urte
Karlos Zubikarai Aranbarri.
Maiatzak 25, 93 urte
Eulalia Lugarizaristi Zabala.
Abuztuak 15, 87 urte
Manuela Enrique Benitez.
Irailak 18, 84 urte

Pedro Martin Iturbe Jauregi.
Irailak 19, 46 urte
Meliton Pardo Quintana.
Urriak 10, 89 urte
Lorenzo Azkarate Lizarralde.
Urriak 31, 62 urte
Hermenegildo Ignacio Benitez.
Azaroak 3, 78 urte
Pedro Telleria Elorriaga.
Azaroak 3, 91 urte
Serapia Larrañaga Agirre.
Azaroak 10, 88 urte

JAIOTAKOAK

Xabier Iparragirre Jauregi.
Urtarrilak 25
Helene Bastarrika Lizarralde.
Urtarrilak 30
Amaia Longares Alvarez.Otsailak 20
Mikel Arregi Iturbe. Martxoak 20
June Azkarateaskasua Bakaikoa.
Apirilak 7
Xabier Martin Madariaga.
Maiatzak 24
Enara Beitia Irizar. Uztailak 4

Jon Mata Etxaniz. Uztailak 7
Leire Escribano Viteri. Irailak 14
Josune Garcia Muñoz. Irailak 25
Eider Aranzabal Lamariano. Urriak 7
Jon Etxezarreta Irizar. Urriak 25
Ane Cabrera Nuñez. Azaroak 11

KANPORA JOANDAKOAK

Aranguren Fernandez, Nerea
Azkargorta Guezalaga, Rakel
Azpeitia Zabaleta, Itziar
Colominas Sanchez, Lorea
Escribano Garcia, Antonio
Escribano Viteri, Leire
Etxaniz Aranguren, Elisabete
Gimber Tabares, Maria Carmen
Gonzalez Guemes, Placido
Hernando Rodriguez, Montserrat
Lamariano Azpeitia, Imanol
Lamariano Azpeitia, Markel
Laskurain Irizar, Olatz
Losada Fernandez, Enrique
Merino Moto, Joaquin
Merino Moto, Juan
Merino Portalo, Antonio
Mugika Sanchez, Xabier

Peña Unamuno, Benito
Peña Unamuno, Milagros
Prado Rey, Jose Ramon
Zabalo Uribistondo, Josune

ETORRI DIRENAK

Albisu Alberdi, Amaia
Aramburu Txintxurreta, Jose Maria
Aranguren Garate, Arrate
Arregui Iturbe, Antxon
Cacciola Donati, Angelo
Cacciola Elorza Aitor
Cacciola Elorza, Sara
Castaño Palacios, Manuel
Elorza Mendia, Miriam
Iñarra Alberdi, Telesfora
Larrañaga Elorza, Ainhoa
Luna Herzog, Carmen
Marimon Felipe, Iñaki
Martin Manzananas, Lorenzo
Olim de Jesus, Ana Maria
Otaadi Arteaga, Igor
Sainz Lage, Luis Maria
Vaquero Luna, Carlos
Vaquero Luna, Jessica

Goizper esportatzaile nagusi

Martxoaren 27an Gipuzkoako Ganberak aurtengo enpresa esportatzaile nagusienaren saria eskaini zion Goizper kooperatibari. Hiru aldiz izendatu dute Goizper sari honetarako eta aurten lortu dute saria.

Nekazaritza arloak, Matabi izenez ezagutzen diren hautseztageak egiten dituen arloa da. Hemen egiten diren produktuak, besteak beste, Frantzia, Hego-Amerika eta Asiaren hegoekialdera esportatzen ditu. Arlo industrialeko enbrageak, balaztak edo frenoak eta lebaz mugitutako biraketa sistemak, ordea, Japonia (produkzioaren %35), EEBB eta Alemaniara saltzen dituzte.

Gainera, Brasil, India eta Kanadara ere hasi dira saltzen. Guztira 100 estatutara saltzen dituzte Goizperko produktuak eta esportaziorako herrialdeak gehitzea espero dute.



Jende ugari izan zen azaroko erakusketan.

Antzuolako produktuak erakusgai

Azaroaren 28 eta 29an, Antzuolako Udalak herriko bederatzi enpresen produktuekin erakusketa bat egin zuen pilotalekuan. Jende ugari hurbildu zen Goizper,

Matz Erreka, Balzers-Elay- Seytra, Talleres Antzuola, Talleres J. Navarro, Alzas Elektrizitatea, Etxaniz Kolak eta Lauko Torlojugintzako produkzioa ezagutzeko.



HIRU
AROSZTEGIA

ATEAK
LEHIOAK
ZORUAK

Ondo pasau Gabonak!

Antigua auzoa 8. 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59

HORMA ARMAIRUAK

Hirigintza proiektuak hasteko zain

Proiektu ugari egon arren Udalak oraindik lan batzuk hasi gabe ditu

Errekarekin bueltaka

Horietako bat dugu Herriko plaza azpitik pasatzen den erreka desbide-razearena. Martxoan erreka plaza ostetik desbideratzea onartu zuen Udaltzatarrak. 8 urte zeramatzaten erreka inguruko erabakia hartu nahian. Azkenean, Udalak bai baina plazako bizilagunek onartzen ez duten erabakia hartu zuten. Erreka plaza ostetik joango da eta zortzi metroko horma egingo dute atzeko mendiari eusteko.

Erabakia hartuta dagoen arren, oraindik ez dira lanak hasi.

Orain dela hamar urteko uztailean izandako uholdeak ahaztu gabe ditu herritar askok. Orduan Surpe tabernaren parean gainezka egin zuen erreka.



Zurrategi

Badira beste hainbat proiektu oraindik hasi gabe daudenak. Horien artean daude Kultur Etxea eta Olaran etxea. Udalak Maristetako eraikinean Kultur Etxea jarriko zuela erabaki zuenetik pare bat urte pasatu dira eta oraindik ez dirudi ezer egingo dutenik, epe motzera behintzat. Berdin gertatzen da Olarango etxearekin ere. Hor enpresa berrien ekimenak lantzeko zentroa jarriko omen dute. Hala ere, hori ere, epe jakinik gabeko proiektu bat da.

Beste horrenbeste gertatzen da Zurrategiko kioskoarekin. Valen Moñuxek egindako proiektua erabakita dagoen arren, oraindik ez dira lanak hasi. Kioskoari zenbait konponketa egin zizkioten arren, herritarrek uste dute umeendako segurtasun arazoak dituela eta, oraindik ere, gurasoek ez dute begi onez ikusten Zurrategiko kioskoa.




Osasun zentroa

Osasun zentroko sarrerak ere iskanbila sortu izan du herritarren artean. Bertaraino eskailera asko daudela eta, herriko zaharrenek edo ibiltzeko zailtasunak dituztenek kexa ugari plazaratu dituzte osasun zentroa egin zenetik. Hori dela eta, maiatzean sarrera konpontzea erabaki zen. Gaur egun Olaran ostetik eginda dago zentrorainoko bidea, oraingoan eskailera barik.

ONGI -ETORRI

urte berri on!



JATETXEA & TABERNA

Berezitasunak:
haragi eta arraina txingarretan

Buztinzuri 6. ANTZUOLA
Tf. 943 76 63 49



Maria
Piedad
Iturbe

ILEAPAINDEGI
MISTOA

SOLARIUMA

Urte berri on!

Antigua auzoa 8, behea. ANTZUOLA
Tf. 943 76 61 86 / 78 71 86 (etxekoa)

igor eta Txomin

Pintura orokorreen.

Paper, tela, binilo, kortxoeko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta

bestelako imitazioak.

ANTZUOLA

BERGARA

☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Baserriko oilaskoak
Baserriko zekorrak

Kalebarren 1, ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34



Maiatzean derbia jokatu zen Antzuola eta Bergarako taldeen artean.

Lehen taldea preferentera jaitsi zen



Maiatzean errejionaleko lehen maila utzi zuen Antzuolako futbol talde nagusiak. Ezin izan zion mailari eutsi eta prefe-

retera jaitsi zen. 98-99 ligarako fitxaje berriak ekarri zituen, gehienak bergararrak, gainera: Unai Irazola, Urko Irizar, Raul Fortuna eta Andoni Elkoro. Herriko fitxajeak, Ibon eta Eneko Segurola, Gu-

ruz Zabalo eta Luis Herzog gira. Entrenatzailea Andoni Azkargorta da eta Josu Larrea dauka laguntzaile. Andoni Azkargortak orain arte gazte mailako taldea entrenatu du.

Esandakoak



“Egia esateko oso ondo pasatu dut; euskaldun giroa dago Eibar taldean, tratu ona izan dut; Perikok sekulako konfidantza ematen du”.

■ **Mikel Larrañaga**
futbolaria



“Federazioak erraztasunak ematen ditu tituluak lortzeko baina jendea ez dago gertu 2-3 hilabete egiteko titulua lortzeko”.

■ **Koldo Madariaga**
AKEko juntakide ohia

Sarriegi taldia urtebete



“Flipatuta gelditu nintzen... Antiguokoek egitea ulertzen dut baina Antzuolatik etortzea peña bat egin nahi dutela esanez... Ideia gustatu zitzaidan baina ez nuen espero”.



Iker Sarriegi



Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria • Erlojuak • Bitxiak • Opariak

Herriko plaza
Tf. 943 78 70 66
ANTZUOLA

GOROSTI
Taberna


*Gabonetan...
Ondo pasau!*

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Pilotalekuak 100 urte bete ditu

Herriko pilotalekuak 100 urte bete ditu aurten. Egun hori ospatzeko pilota jaialdi berezia antolatu zuen Olalde Pilota Elkarteak, urriaren 3an. Binakako bi partidu jokatu ziren zapatu horretan. Lehenengo norgehiagoka Aritz-Auskin eta Soroa III-Almandozen artean eta bigarrena, berriz, Olaizola II-Elkoro eta Etxaniz-Bernaren artean.

Baina ez da hori izan Olaldek antolatu duen ekitaldi bakarra. Urtero bezala herriko eskuz binakako txapelketa ere antolatu zuen. Hamasei bikotek eman zuten izena eta joan den abenduaren 19an final erdiak jokatu ziren. Bigarren mailan Azkarate anaiak, Sanse eta Aitzolen aurka eta Garitano anaiak, Bittor eta Polleroren aurka. Lehen mailan, berriz, Aranguren-Azkarate, J. R. Jauregi-Mendizabalen aurka eta Jose Mari-Josue, Eneko-Andoitzaren aurka. Finalak abenduaren 26an, zapatuan, jokatu dira goizeko 11:00etatik aurrera.



Elkoro-Olaizola II eta Berna-Etxaniz.

Esandakoak



"Ezta erraza pelotan zerbait lortzia; lana egin bihar da eta oin onentsuenak gora pasatzen dabitz eta igual hemendik aurrera geu bakarrik geldituko gara. Norgehiagoka haundixa be badago profesioaletara pasatzeko; hala ta be, ona zala erakutsi bihar da eta gaiñera entxuferen bat baldin badaukazu ba, bueno... Guri hor gora, profesioaletara, heltzia gustatuko jakun".

■ **Iker Muruamendiaraz eta Unai Idiakez**
pilotariak

Berraondo Aspera



AMAI LABAEN

Aritz Berraondo profesioaletan hasikoko da urte berrian. Azaroaren bukaeran sinatu zuen Aspe enpresarekin bi urterako kontratua. Lehenengo neurketa ordea, urtarrilean izango du. Urtarrilaren batean, hain zuzen ere, Eibarko Astelena pilotalekuan.

Aritzek 22 urte baino ez ditu eta jadanik bi urtez izan da Mexikoko pilota mundialean. 1997an bera izan zen bere mailako munduko txapelduna. Aurten ordea, Iker Muruamendiarazek eraman du munduko titulua



Antzuolako Udalak Gabon jai zoriontsuak eta urte berri on bat opa dizkizue Antzuolar guztioi.

ANTZUOLAKO UDALA

Herriko plaza 8. Tf. 943 76 62 46. Faxa 943 78 71 00

Esandakoak



"Txapelketā denetan esaten digute, Antzuolakoren bat baldin badago seguru zeozer irabazten dugula. Esaten dute maila ona daukagula... baina hemendik aurrera ez dakit zer pasatuko den. Jendea animatzen baldin bada talde polita osatu genezakeela uste dut. Umeak animatzea nahiko genuke, beste denak futbolean dabilta eta!"

■ Egoitz Jauregi
atleta



Trekutzen egin zuten hamarretakoa Deba bailarako neska-mutikoek.

Eskola arteko martxa

Arrola Mendizale Elkarteak Deba bailarako eskolarteko ibilaldi neurtua antolatu zuen martxoaren 15erako. Hamar urteren bueltan antolatzen zen herrian mota honetako ibilaldia eta 1.600 lagun

etorri ziren. Zurrategi-Uzarraga-Kostarratzu-Trekutz- Amilleta-Kaxeta-Zurrategi ibilaldia egin behar izan zuten neska-mutikoek. 7 urtetik 15era bitartekoak, Deba bailarako herri guztietatik etorri ziren.

Esandakoak



"Internazionala izan nahiko nuke. Europako kros txapelketan parte hartu nahiko nuke. Iaz meritoak egin nituela uste dut baina hautatzaileak inguruko jendea aukeratu zuen. Jakina, Marrakexen jokatuiko den Munduko Txapelketan izatea gustatuko litzaidake."

■ Antonio Merino
korrikalaria

Antzuolarrak Behobia-Donostian



Hogeitabost bat korrikalari aritu ziren azaroaren 8an Donostia- Behobia lasterketan. Korrikalarien artean Bizkai, Juan Jose Aranburu, Eltzikorta eta Patxi euskal presoak ere izan ziren. Horrela nahi izan zuten euren lagunek presoekin elkartasuna adierazteko.



- Batoiak - Pijamak - Barruko erropak - Galtzerdiak
- Toallak - Izarak

Produktu eta zerbitzu onak

Zorionak!

Herriko plaza 6 ANTZUOLA. Tf.: 943 76 62 14



Euskal sukaldaritza

Eguneko menua

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

Idolaz beste urte bat euskararen alde

Idolazek aurten ere ekintza ugari antolatu ditu. Horien artean aipagarriena bertso ikastaroa du. Izena eman zutenak jarraitzeko goiarekin gelditu ziren. Irakaslea Ainhoa Agirreazaldegia bertsolari bergararra izan zen.

Zuzendaritza Batzorde berria aukeratu zuen euskara elkarteak eta lehenakari berria hautatu. Datorren urtean ere junta berriezta tokatzen dela eta, antzularrei deia luzatuko diete euskararen alde lan egin nahi dutenek parte hartu dezaten. Oraindik ere hamabostero biltzen jarraitzen dute Idolazkideek Maristetako lokalean.

Urtero Idolazek antolatzen duen lehiaketatako bat, Antzuolako jaietako pegatina lehiaketa da.

Aurten Andoni Larrañagak irabazi zuen. Orain Euskararen Gizarte Erakun-



Otsailean egin zen Idolazek antolatutako bertso ikastaroa.

deen Kontseilua burutzen ari den kanpainan dihardu herriko beste taldeekin batera.

Bestalde, eta urte berriari begira,

Debagunek ateratako egutegiak laster banatuko ditu. 1999rako Deba Garaiko euskara elkarteek jaiak hautatu dituzte egutegien gai nagusizat.

Esandakoak



"Gure euskeria ezta Tolosakua edo Urretxukua baiño zatarragaa, ezta gutxiago be.

Bestiak bezain duiña eta ona da guria. Askotan eztoqu baloratzen bihar dan moduan...

Eztoqu euki bihar iñungo lotsarik gure euskeria egitako".

■ **Jone Larrañaga**

filologoa

Herriko eskola saritua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtero ematen duen "Karme Alzueta" sarian ohorezko aipamena izan zuen herriko ikaste-txeak aurkeztutako lanak. "Saia-kerak konstruktibista bat Lehen Hezkuntzan: Giza Gorputza" izenburua zuen lanak eta 6. mailako neska-mutikoez egindakoa zen. Saiakera honetan, giza gorputzaren funtzionamendua aztertu eta garatu zuten antzularrek. Eusko Jaurlaritzak antzularren lana argitaratuko du saritutako beste lanekin batera aterako duen liburu batean.



Urte berri on!



Gabilondo-Arregi
harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

zabalo

IGELTSEBOTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA Tf. 943 76 60 88

Herriko ondareak berrizten

Herriko ondareak berritzeko proiektu ugari jarri dira martxan herrian. Iaz ere aritu zen hainbat antzuolar honelako ekimenekin. Aurten ordea, errotez gain Antiguako eta San Blaseko irudiak ere berriztu ditu. Antiguako esaterako Andra Mariaren irudia berriztu da, Gipuzkoako Aldundiaren dirulaguntzarekin. San Blaseko ermitan, berriz, hiru irudi berriztu dira, Udalak emandako laguntzarekin. Horietako Bi Santa Engrazia eta San Blas irudiak. Irudiok abenduaren 12an egon ziren ikusgai Udaletxean egindako erakusketan. Errotei dagokienez, Florentino Lamarianoren errotaren inaugurazioa egin zen ekainean eta oraintsu Jesus Odriozola Bizkaltzako errota berrizten hasi da. Jose Mari Iturbek ere jarraitzen du Akiñabeiko errota konpontzen.



Santa Engrazia, San Blas eta Andra Mariaren irudiak berriztu zituzten.

Larrugintzaren omenezko ekimenak



"Madril, Alikante, Zaragoza eta Logroñoako zapata fabriketarako egitten zan larrua. Gerra ostian biajantiak etortzen zien material billa."

■ **Maximo Aristi,**
larrugintzako langile ohia

Garai batean horren oparoa izan zen larrugintza produkzioa oroitzeko eskultura inauguratu zen Zurrategi plazan uztail hasieran. Langileei eskainitako eskultura Luis Beitiak egin zuen.

Horrekin batera Antzuolako Udalaren Antzuola Herria ikerketa bekaren 3. edizioa larrugintza ikertzeko izango da. Ikerketa Antxon Agirre Sorondok egingo du, etnografian adituak.



Aureli

Cot Velasco

Ilcapaindegia

Cot

Ederitze aretoa



Errekalde 2 ANTZUOLA. Tf. 943 78 71 37

Gabonetako oparirik onena erostean, EXCEL THERAPY RENACER aurpegirako tratamendu lotea, Germaine de Capucciniren Biosome krema izango duzu opari.



Zorionak eta urte berri on!

Giro ona herriko jai guztietan

Jai ugari ospatu dira herrian urtean zehar. Hori dela eta, aurtengo jai giroa jaso nahi izan dugu.

Ihauteriak, San Martzialak, Kalebarren-go jaiak eta Uzarragakoak dituzue hemen. Leku faltak kanpoan utzi ditu beste guztiak.




Ihauterietan, herritarrak dantzan aritu ziren egun osoan zehar.



San martzialgo jaietan ondo baino hobeto pasatu zuten elkarri belarritik tiraka.



Uzarragako jaiak ere jendetsuak izan ziren.



San Pedrotan, Josu Zubikaraik irabazi eta Josu Seguiolak ezin astoa dominatu.



Zorionak antzuolarrok!

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

GOIZPER

Transmisioak

Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, pneumatiko, elektromagnetiko eta hidraulikoak.

Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenakako biragailuak. Espeka bereziak.

MATABI

Ihinztagailuak

Nekazaritzan, lorategietan, industrian eta etxean tratamendua egiteko ihinztagailu eta hautseztagailuak.

FABRIKAZIOA

GOIZPER

KOOP. ELK.

Tf. 943 78 60 00

Telexa 38856 GOIS-E

Antigua auzoa 4

20577 Antzuola (Gipuzkoa)

211 Posta kutxatila 20570 Bergara

Faxa 943 76 60 08-943 78 70 95



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ate eta pertsianak zabaltzeko motorreduktoreen fabrikazioa

Ibarreta z/g 20577 Antzuola

Tf. 943 76 60 00 Faxa 943 76 63 75



elay

Taldea

elay INDUSTRIAL

Ebaketa zehatza / Doitasunezko trokelaketa

TROKelay

Trokelgintza

SEYTRA

Galda bainitokoa / Plastikodun gainestalketa

elay-DEUTSCHLAND

Zerbitzu komertziala

Balzers-Elay Balinīt

Estaldura gogorretako zerbitzua

Tf. 943 766100

Faxa 943 766262

20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)

Zorionak Gabonetan!

Gabonetan zer?

EGUENA
abenduak

24



Olentzero kalera
Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako Plataformak, Senideak, Gestorek eta Udalak deituta egun horretan Olentzero kalera aterako da. Kalejira 18:30etan izango da, Herriko plazan hasita. Eskolako haurrak goizean aterako dira.

ZAPATUA
abenduak

26

Bai Euskarari eta Sarriegi Taldia

Euskal Herriko bost estadiotan egingo den Bai Euskarari jaialdi erraldoira autobusa irtengo da herritik. Antzuolarrak Mendizorroztzara joango dira. Jaialdi erraldoi horrekin bat egin nahi izan du Sarriegi Taldiak ere. Horregatik, bere bazkide guztiei Mendizorroztzara joateko deia egin die, ondoren Sarriegi Taldia-
ren aurkezpena denak batera joateko. Aurkezpen ekitaldia arratsaldeko 20:30etan egingo da zinean. Ondoren afaria egingo dute Jubilatuetan. Afaria bazkideentzako bakarrik izango da eta izena emateko Mox, Larrea eta Gazte-
txera jo daiteke, abenduaren 23a, eguaztena, baino lehen.

Txistu kontzertua

Herriko txistulariek kontzertua eskainiko dute zine aretoan. Emanaldia meza ostean izango da.

MARTITZENA
abenduak

29

Umeentzako parkea

Gabonetako parkea ireki-
ko dute pilotalekuan neska-mutikoentzat. Egunean zehar puzgarri handia, gaztelu ertaina eta txikia, goming sokatira eta jolastokia jarriko dira. Sarrera: 200 PTA.

EGUENA
abenduak

31

Aizkorri Arrolarekin

Urteroko mendi irteera egingo du Arrolak Aizkorri. Ordua 08:00etan, Herriko plazan.

Presoen aldeko kontzentrazioa


Euskal presoek elkartasuna adierazteko kontzentrazio isila egingo da Herriko plazan eguerdian. Gabonetan zehar material salmenta ere egingo da.

EGUAKITZA
urtarrilak

1

Arrola gainera

Urtea modu ezin hobean hasi nahi duenak Arrolara igotzeko aukera dauka urtarriaren 1ean. Arrola Mendizale Elkartek urtero antolatzen du mendi irteera hau eta goizeko 09:00etan abiatuko dira Herriko plazatik. Arrolan salda beroa eta txistorra jateko aukera izango dute mendizaleek.



Independentzia eguna

Abenduaren 12an izan zen arren, urtarriaren 9an ospatuko da Antzuolarrak Independentzia Eguna. Iaz bezala, ekintza ugari egongo dira egun osoan zehar:

10:30: txistularien kalejira

Eguerdian: poteoa txarangarekin

14:00: herri bazkaria, pilotalekuan, Jon Maia eta Igor Elortza bertsolariak, Orioko Gansterrak, trikitilariak, dantzariak, txistulariak...

Iluntzean: Trikti ta Ke, Zurrategiko kioskoan.

Gauean: jaiak jarraituko du aspertu artean.

Gabon zoriotsuak!

Urte berri on!

ANTZUOLAKO BASERRIETAKO
HARAGI
NATURAL ETA ONENAK
Juan Jose AGIRRE
Kalebarren 1, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 84



AITZ-GARBI
taberna-jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak


Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

TELAETXE S.A.



Gabon zoriontsuak
izan ditzazuela!

Fabrikako prezioan!



**NEGUKO OIHAL
BERRIAK
PREST!**

**Tapizeria berriak eta kortina
aukera handia**

Aukera handia oihaletan eta pusketetan, metroka zein pisura
Edredoi nordikoak

Tapizen erakusketa:

Zetak, kortinak, toailak, yakareak, izarak, tapizak, eta abar

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, Cofones Agirrezabal-en ondoan)
Telefonoak: 943 76 39 40 / 39 41 • Faxa: 943 76 56 38 • BERGARA

ORDUTEGIA

Astelehenetik zapatuta: 10:00-13:00 eta 16:00-19:30

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

Gabon zoriontuak · Urte Berri On · Gabon zoriontuak · Urte Berri On

OPARI DESBERDIN BAT EGITEKO MULTIOPTICAS-en IDEIAK



Prezioa 15.150
GABONETAN 12.125

Prezioa 16.820
GABONETAN 11.900

Prezioa 5.450
GABONETAN 3.575

Prezioa 12.500
GABONETAN 8.900

Prezioa 17.500
GABONETAN 12.200

Prezioa 5.710
GABONETAN 5.710

Ibiltariarentzako podometroa

Barruko eta kanpoko termometroa, kabile gabe eta erloju iratzargailua

Gabon zoriontuak · Urte Berri On · Gabon zoriontuak · Urte Berri On



Prezioa 14.580
GABONETAN 10.500

Prezioa 14.280
GABONETAN 10.300

Prezioa 14.580
GABONETAN 10.500

Prezioa 17.340
GABONETAN 12.900

GABON HAUETARAKO OPARI EZAZU RAY-BAN

Betaurreko batzuk erositagatik "Definitely 1999" Ajardia bat lortuko duzu



LAKET
Barrenkalea 35. Tf. 943 76 03 98

TXIKI-LAKET
Simon Arrieta 6. Tf. 943 76 37 41



Txiki-Laket, laster, Irala kalean izango duzue!

Gogoan daukat Mikel ezagutu nueneko eguna: 1985eko apirilaren 30ean izan zen, Gasteizen. San Prudentzio jaietako berbena batean kointziditu genuen. Garai hartan bera Ebano taldean zebilen eta ni, berriz, Iruñeko Equus orkestarekin. Elkarren berri bagenuen aurretik eta esan behar dut Mikel ordurako nahiko ezaguna zela. Lehia sanoa genuen eta Gasteizen hasitako adiskidetasuna ez dugu galdu.

Harrezkero errepidean askotan egin genuen topo. Ondoren, Mikel Madrilera joan zen. Besteak beste, Orquesta Alcatraz, Cadillac edota La decada prodigiosa taldeetan aritu zen eta estudio-

ko musiko bikaina ere izan da. Imitatzeko duen kapazitate handia aprobetxatuz, publizitate munduan lan asko egin zuen garai batean, arrakasta handiz gainera. Adibidez, Canal Plusek promoziorako erabili zuen "Me gusta el futbol" iragarki hartako ahotsa berea zen. Ahots aldakorra daukala erakutsi du behin eta berriz eta, horrez gain, artista eskuzabala dela azpimarratuko nuke; beste batzuentzat abestiak konposatzeaz gain, hainbat kasutan produktore lanak ere egin izan ditu. Iza-

era zabalekoa, oso langilea, dinamikoa eta disziplina handikoa da Mikel eta argi dago bere ofizioa ikaragarri gustatzen zaiola, musikarako bizi baita.


Aurten Eurovision lehiaketan parte hartzeko aukera izan du "Que voy a hacer sin ti" kantuarekin. Ni ere lehiaketa horretan izan nintzen, 1992an, Suedian. Orduan Mikel nirekin etorri zen Malmoe hirira eta, berak komentatu didanez, Ingalaterrako esperientzia antzekoa gertatu zitzaion (emaitza ere antzekoa lortu dugu biok, erdialdean sailkatuz). Pozik etorri zen lan ona egin zuelako, baina hone-lakoetan epaimahaiak dauka azken hitza. Promoziorako

baliagarria izan arren, Eurovisionek ez dauka garai bateko indarra.

Momentuan, buru-belarri ari da bere azken disko-promozionatzen. Gaur egun Cambrilsen bizi denez (itsaso izugarri gustatzen zaio) gutxiagotan egoten gara. Hala ere, telefonoz elkarren berri izaten jarraitzen dugu. Bere lehendabiziko semearen aitapuntakoa naiz eta kantari bikaina eta lagun hobe delako esango nuke.

SERAFIN ZUBIRI

Kantaria



MIKEL HERZOG

Kantari bikaina eta lagun hobe

Bergararra ■ Nekez, Alcatraz, Cadillac edota La decada prodigiosa taldeetan ibilitakoa ■ Bakarlarri modura lau disko kaleratu ditu ■ Eurovision lehiaketan izan da aurten

ARGAZKIA: JOSE LUIS CALLEJA (EL CORREO)



LASA
Jatetxea

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

Urteko ahopekoak



Euskaraokea Bergaran

Euskal Telebistako "Euskaraokea" saioa grabatu zen Eurtarrilaren 23an Plazan. Neska-mutikoeek salto ederrak egin behar izan zituzten agertokian hotzari aurre egiteko. Grabazioak lau ordu iraun zuen, pantailan tirada batean ikusten dugunak uste baino lan gehiago eskatzen baitu. **Ixiar Oreja** eta **Aitor Furundarena** aurkezleekin aritu ziren gaztetxoak (60 inguru) pozen pozez zeuden telebistan agertzeagatik.

Maiteren ezkontza

Maite Aristegi Euskal Herriko Nekazarien Elkarte-ko Idazkari Orokorra **Jon Odriozola** kazetari bizkaitarrarekin ezkondu zen otsailaren 21ean. Etxetik gertu ezkondu zen Maite, San Martzialen, eta lagun asko hurbildu ziren bertara bikotea zoriontzeko. Orfeoiko talde batek elizkizunean parte hartu zuen eta Xamatx dantza taldeak ezkonberrien omenezko dantzak eskaini zituen ermita ondoan. Eztei-bidaia Europara egin zuten Jonek eta Maitek. Bikotearen lehen alaba otsailerako helduko da...



Sagarpek eta Umore Onak urrezko ezteiak

1948an martxan jarri ziren **Sagarpe** eta **Umore Ona** elkarteek urrezko ezteiak bete dituzte aurten. Apirilaren 4an Sagarpek 50. urteurrenara bizirik heldutako bazkide sortzaileak omendu zituen eta apirilaren 5ean 70 bat lagun bildu ziren bazkideen bazkarian. Umore Onako bazkideek, berriz, elkartearen sorreraren urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria egin zuten San Martin egunean. Kasu honetan hamabost izan ziren omendutako bazkide sortzaileak.





Tigre bergararrak

Urtarrilaren 13an lehen tigre bergararrak jaio ziren. **Holiday zirkoa** iritsi zitzaigun Bergarara eta funtzioak hasi baino bi egun lehenago "Sacha" Bengalako tigre batek hiru tigrekume egin zituen. **Redy Cristiani** tigre eta lehoien hezitzaileak esan zigunez, tigrekumeak gutxienez urtebete izan arte ez dira zirko pistara ateratzen. Debutatzeko zorian izango dira, beraz...



ARGAZKI

1948an jaiotakoak

Argazkikoek ere euren urrezko ezteiak bete dituzte 1998an. Azken urteotako joerari eutsiz, kinto bazkari eta afariak ugalduz joan dira. **Arrakastatsuenetakoa**, 50 urte betetzen dituztenena izaten da eta halaxe gertatu zen berriz ere. **1948an jaiotako** Bergarako gizon eta emakumeak irailaren 26an bildu ziren aurreneko aldiz eta **107 lagun** izan ziren Lasan egindako afarian. La Parranda musika talde bergararrak guztiak dantzan jarri zituen afalosteko mariatxiekin...

"Buitre"aren kinta

Argazkikoak ez dira **Butragueño**ren kintakoak baina Real Madridedeko izarra izandakoarekin egin zuten topo Mexikon. Hara oportetara joan eta Atletico Celayan bere futbol karrerari amaiera eman zion futbolariarekin elkartu ziren. "Marca" egunkariarekin borrokatu behar izan genuen argazkia eskusiban argitaratzeko. Ezkerretik eskumara, Igor Loiti "Txopo", "Franki", Emilio Butragueño, Jon Altuna "Oxan" eta Imanol Alberdi "Maroto".



Matxiategi
Elektragintza
C.B.


Fleming Doktorea 5 943 76 19 94

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN SALMENTA
ETA INSTALAZIOA

Gabon zorionsuak opa dizkizugu

Orio arraun taldeari omenaldia

Orio Arraun Elkarteari omenaldi beroa eskaini zitzaion Bergaran urriaren 17an. Oriotarrek Otsein euren babeslearen lantegia bisitatu zuten eta jarrera Udaletxeko Pleno aretoan harre-ra egin zitzaion. Udaletxeko balkoietan oriotarrek aurten lortutako 16 ikurriñak eskegi zituzten. Handik astebetera albiste tamalgarrira iritsi zitzaigun; **“Txiki” Larrañaga** Orioko patroia kotxe istripuan hil zen.



Limoi, patata eta onddo ikusgarriak

Goiko argazkiak ikusita behintzat, uzta oneko urtea izan dela ematen du amaituan dagoen hau. **Begoña Bengoak** eta **Manolo Rodriguezek** orain dela lau urte landatu zuten etxeko terrazan lagun batek Alacantetik ekarri zien limoi landarea. Emaizta bistan duzue; aurten 600, 500 eta 400 gramoko hiru limoi eder eta beste 29 txikiagoak jaso dituzte. Bestalde, **Juan Sanchezek** 2,290 Kg.ko patata jaso zuen irailean Basalgon duen ortuan. Azkenik, **Alfonso Caballerok** perretxiko denboraldiko pieza ikusgarrienetakoa jaso zuen Aramaio aldean urriaren hasieran. Onddo handienak 1,090 K.ko pisua eman zuen.

Hiru kantoreri omenaldia

Parrokietako koroan dabilzanak ere kantari bikainak ditugu, nahiz eta euren lana oharkabekoa izan askotan. Azaroaren 8an **Jesus Berroyak**, **Inazio Madinabeitiak** eta **Roman Mujikak** San Pedro eta Santa Marinako eliztarren omenaldi beroa jaso zuten parrokietako koroan urtetan egindako lanagatik. Hirurek **Miguel Okinak** egindako erretratu bana jaso zuten operari gisa San Pedron. Gero, bazkarian, Okinari ere oroigarritxo bat eman zioten orain arte omendutako kantore guztiak modu bikainean erretratzeagatik.





UNZURRUNZAGA


Orfeoiaren urtea

1999ko iraila bitartean hainbat ekitaldi antolatu ditu Orfeoiak bere sorreraren **75. urteurrena** ospatzeko. Joan zen azaroaren 21eko Santa Zeziliako kontzertuan Orfeoiko kide izandakoak izan genituen protagonista. Orfeoitik igarotako guztiei (omenaldian gutxiago bildu arren, 300 inguru izan dira danera) eta taldeak **David Azurzaren** etorri aurretik izan dituen lau zuzendariei omenaldia eskani zitzaien. Kontzertuari amaiera emateko, guztiek "Haurtxoa seaskan" izeneko kantua abestu zuten.



Berrigara Arralden

BERRIGARA Arraldeko kioskoetara heldu da aurten. Argazkian ikus daitekeenez, gure aldizkariak harrera ezin-hobea izan du Goenkaleko protagonisten artean. Goenkaleko jarraitzaileek somatuko zuten, beste egunkari eta aldizkarien artean, **BERRIGARAKO** aleak egoten direla "salgai" Arraldeko kioskoan. Martxa honetan Arralderi buruzko gehigarria argitaratuko dugu. Bertako korrespontsala nor izango ote?



BILTOKI

dekorazioa

ESTILO KLASIKOKO ALTZARIAK
ETA GAZTE ESTILOKOAK.
ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO
SOFAK...
DEKORAZORAKO OSAGARRIAK
SAN MARTIN PLAZA. Tfnoa: 943 76 43 51

elektragailuak

MERKATUKO MARKARIK ONENAK
BARRENKALEA 6 . Tfnoa: 943 76 25 96

ikus entzunezkoak

Banatzaile ofiziala

SONY PHILIPS
SAMSUNG PIONEER

sukalde eta bainuak

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
GARANTIA ETA ZERBITZU HOBERENA.
SAN PEDRO PLAZA Z/G. Tfnoa: 943 76 34 00

**Gabon zorientsuak izan ditzazula opa dizugu
eta urte berri on!**

Etxebizitza BERGGARAN

Interes tipoen jaitsierarekin pi-suen eskaera igo egin da azkenaldian. Gure herrian ere merkatuak hazkunde nabaria izan du. Hori dela eta, etxebizitzaren inguruko hainbat aspektu azertzeko Amaia Marco (Deba Garaia inmobiliaria), Andres Garitano (Construcciones Beitia) eta Jose Angel Mikeo (Angiozarko auzo alkatea izandakoa) mahai baten bueltan bildu ditugu.



Aditu inmobiliario-en ustetan etxebizitza berriek %5-10 tartean igoko dute 1999an. Zer dela eta horrenbesteko igoera?

Andres Garitano: Nik uste dut ez dela motiborik %5, %10a edo %12a igozteko, bizimoduak igotzen duen neu-

rrian etxebizitzek ere gora egin behar dutela. Gertatu daiteke araudi berriak kaleratzean (telekomunikazioekin gertatuko den moduan) horrek prezioetan eragina izatea eta igoera IPCarena baino altuagoa izatea. Baina igoera IPCaren parekoa izan beharko litzateke; bizimodua igotzen den bezala etxebizitzaren prezioak ere igoko dira, gremioak ere igoera eske etortzen direlako.

Asegura ezazu zeure etorkizuna.

Winterthur-en pentsio eta jubilazio planek segurtasuna ematen dizute.

Kalitatea eta zerbitzua preziorik onenean eskaintzen dizkizugu Winterthur-en.

OPARI BAT DAUKAGU ZURETAKO!

winterthur

aseguruak

Zurradero, 6 behea. Tf. eta faxa 943 76 17 40

ZORIONAK!

Amaia Marco: Egia da etxebizitzak oso garesti daudela. Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioek ere nabarmen gora egin dute; lehenengo eskukoak igotzen badu, bigarren eskukoarekin beste horrenbeste gertatzen da. Uste dut arrazoi nagusia eskaintza gutxi eta eskaera asko dagoela izan daitekeela. Hemendik urtebetera etxebizitza gehiago irtetetzen direnean igual merketuko dira, ikusi egin behar.

Etxe asko hutsik omen daude.

Amaia Marco: Etxe zahar asko daude hutsik, 700 bat. Gertatzen da horiek ez daudela merkatuan eta ez pentsa hainbeste eskari dagoenik. Jendeak nahi izaten du berrietara joatea, gutxienez 20 urtetik behera dauzkaten etxeak erostea. Badira nahiago dutenak etxe zahar bat berriztea baina halakoak gutxi izaten dira.

Eta auzoetako egoera?

Jose Angel Mikeo: Prezioetan sar-tzea baino, aipatzekoa da gure ikuspe-gitik gizartean gertatu den aldaketa. Auzoetako asunto hau aztertzen dene-an, etxeak auzoetan egitearena, institu-zioen aldetik eta igual jendearen alde-tik ere ikuspegi rurala dago. Kontutan hartu behar da duela 20 urtetik hona hori zeharo aldatu dela; gizartea urba-noa da eta jendeak urbano moduan es-katzen ditu etxeak, ez da pentsatu be-har baserri baten atzetik dabiltzanik, esplotazio ganaderoak ia desagertu egin dira eta gure inguruan. Nahi du te kaleko etxe tipo berdintsua baina igual jatorriz euren den lekuan, Angiozar-ren edo Uberan, inguru hori ezagut-zen dutelako eta han bizi nahi dutelako. Orain dela 10 urtetik gabilta etxe berriak Angiozarren egin nahian.

Eta zergatik ez dira egiten?

Jose Angel Mikeo: Gure problema nagusia lurra da, oso garestia dela. Be-

harrada hasierako planteamenduare-kin gaizki jokatu genuen: lursail batzuk urbanizagarriak bihurtu beharrean, lu-rra erosi behar genuen, oraindik rurala zenean eta gero urbanizagarri bihurtu. Jendeak etxe normalak nahi lituzke, ez txaletak egitea bakarrik. Hor daude bizpahiru kontzeptu gurutzatzen dire-nak: batetik gizartea urbanizatu egin dela nahiz eta baserrian bizi, lurra ga-restia dela bestetik eta, azkenik, ez dakit konstruktoreek zela ikusiko duten baina Angiozarren egitea garestiagoa dela Bergaran, kalean, egitea baino.

Andres Garitano: Garestiagoa ir-tengo litzateke ez delako lojikia An-giozar moduko auzo batean 5 pisuko etxeak egitea. Etxea zenbat eta baxua-goa izan, hainbat gastu (igogailua esate baterako) murriztu egiten dira. Dena den, terrenua non dagoen eta zelakoa den kontuan hartu behar da. Angiozar-ren ez dakit eraikitzeko terrenorik da-goen...

Jose Angel Mikeo: Kalean bai. An-giozarren badugu urbanizagarria den zona bat. Ikusten dugu politika ofizia-lak ez digula batere laguntzen. Non egiten dira babes ofizialeko etxeak? Angiozarren ez. Derrigorrezkoa ikusten dugu instituzioek eskua sartu beharra, bestela desagertzera doaz auzoak. An-giozarko biztanleria erdira jaitsi da az-ken 20 urteetan. Udalak nahiko territo-rio handia administratzen du eta lehen-tasun batzuk markatzen dira. Momen-tuan San Antonio da lehentasuna duen toki bat eta bitartean 10 urte igaro dira guri soluzioa topatu barik.

Amaia Marco: Guregana etortzen direnak beti eskatzen digute etxea herri erditik gertu, San Antoniotik kalera eta kaletik Poligonora, urrunago ez.

Andres Garitano: Nik askotan esan dut. Gustatuko litzaiguke etxeak ez bakarrik zentroan, auzoetan ere egin ahal izatea. Ezin dena da auzoetan te-rrenoak Bergarako moduan pagatu eta

Gustatuko litzaiguke etxeak ez bakarrik zentroan, auzoetan ere egin ahal izatea. Ezin dena da auzoetan terrenoak Bergara moduan pagatu"



ANDRES GARITANO
Construcciones Beitia

Etxe zahar asko daude hutsik Bergaran, 700 inguru. Gertatzen da horiek ez daudela merkatuan eta ez pentsa hainbeste eskari dagoenik"




AMAIA MARCO.
Deba Garaia inmobiliaria

Angiozarko biztanleria erdira jaitsi da azken 20 urteotan. Aspaldi gabilta etxe berriak egin nahian jendea bertan gera dadin"



JOSE ANGEL MIKEO.
Angiozarko auzo alkatea izandakoa



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32, behea BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65, faxa: 943 76 11 40

artean etxe merkeak egitea. Guretako etxeak merke egitea ez da erreza; merkeagoak egitea posible da baina gaur egun herri erdian eraikitzeagatik jarzen dizkiguten kargekin... Udalak auzoetan karga gutxiko terrenuak ipiniko balitu etxeak merkeagoak izango lirateke. Hor daukagu adibidea: Antzuolan 18 milioi pezeta balio duen etxeak Bergaran 25 milioi balio du. Auzoetan etxeak egiteko interesik dagoen aztertu behar da. Etxeak eraikitzerakoan garaiek eta baxuak ere kontutan hartu behar dira eta auzoetan badakigu baxuak saltzea kontu nekeza dela. Errentabilitate normalea eukita bertara joango ginateke. Oraingoz hobeto irtetzen zaigu beharbada garestiago diren terrenuetan eraikitzea auzoetan baino.

Prezioak aipatu direnez, zein da Bergarako egoera inguruko beste herriekin konparatuta?

Amaia Marco: Ez da herri garestiena baina hortxe-hortxe dago. Arrasate oraindik Bergara baino garestiagoa da. Ondoren, Bergara, Oñati (biak antzerra), Aretxabaleta eta Eskoriatza leudeke, etxe berrien prezioei begiratuta. Eibar garestia da baina saturatuta dago.

Orain, interes tipoen jaitsierarekin, etxebizitza bat erosteko momentu ona dela esaten da.

Amaia Marco: Momentu oso ona, interesek behera egin dutelako. Etxebizitzek ere gora egin dute eta ez dago, lehengo egoerarekin konparatuta, amaierako prezioan jendeak uste bezain alde handia. Bi urtetik hona merkatuak izugarritzko hazkundea izan du eta bigarren eskuko etxebizitzetara ere eragin die hazkundeak. Orokorrean erosteko momentu ona da. Askotan benetako prezioan baino prezio altuagotan saltzen dira etxe zaharrak eta jendea berria erosteko aprobetxatzen ari da.

Andres Garitano: Asko dira biga-



ren etxebizitza erosten dutenak baina baita ere, badira, biak lanean egon eta etxe berri bat erosten duten bikoteak. Prezioetan ere denerakoa dago. Jendeak badaki bere topea zein den eta gutxi dira pisua erostera etorri eta erosi gabe alde egiten dutenak. Bergaran eta Antzuolan prezioak ez dira berdinak eta momentuan 20 milioiko etxe bat erosi ezin duen batek ba merkeago baten sartu eta beste momentu hobetoago baten zai geratzen da. Halere, interesen jaitsierari esker, momentu ona da hau.



Eskaintza gutxi eta eskaera asko dago. Bestalde, guregana etortzen direnak behintzat beti eskatzen digute etxea herri erditik gertu"

AMAIA MARCO
Deba Garaia inmobiliaria

Alokairuen merkatua erostetena baino askoz urriagoa da....

Andres Garitano: Jendeak ez dauka alokairurako mentalidaderik hemen. Baxu bat alkitatzean ere hilero ordaindutakoarekin baxua ordaindu dezakeela ikusten du jendeak. Interes tipoa baxu egotean, hori gertatzen hasi da orain. Jendeak ahal duenean lokala edo pisua erostera jotzen du. Pare bat urtean alokairuan egon eta zerbait aurreztutakoan erosi.

Amaia Marco: Etxebizitzen kasuan alokairuek asko egin dute gora, hilean 60.000 pezeta inguru ordaintzen dira gaur egun alokairuko etxebizitza bategatik. Hori ordaintzen egon beharrean, jendeak nahiago du 10 milioi pezetako etxe zahartxo bat erosi eta berritzea. Alokairuarekin baino esfortzu pittin bat haundiagoa eginez, etxe propioa izateko aukera dago gaur. Egia da Europa hemen baino askoz tradizio handiagoa dagoela alokairuko etxebizitzetan bizi-tzekoa; alokairuak baxuagoak dira eta administrazioak alokairuen merkatua bultzatzen du.

Jose Angel Mikeo: Angiozarren eta auzoetan etxebizitza alkilerrekoak edo bigarren eskukoak oso zaharrak dira; ez dira 30 urteko etxeak izaten.

erlojutegia

i R U D I

bitxitegia

Konponketarako tailerra daukagu

Ibargarai, 2 Tf. 943 76 51 65

Zorionak eta urte berri on.

100 urteko etxeak dira kasu askotan, berritze lanak behar dituztenak. Azken salmentak berrizteko dauden baserrienak izan dira. Ezkonberriak bertara bizitzera etorri dira. Oso kasu berezia da baserri bat hartu eta egokitzea. Jendeak etxe berria nahi du, bere etxe propioa. Lehengo etxeak hestuak eta luzeskak dira eta aldameneko pisua beste atari batekoa izatean, handitzeko aukera guzti egoten da.

Etxebizitza zaharrak berrizteko laguntzak ere badira...

Amaia Marco: Eusko Jaurlaritzak ematen ditu horrelako laguntzak baina baremo batzuetan egon behar zara, besteak beste, soldata, etxebizitzaren prezioa edota metro karratuei dagokienez. Etxebizitzen berrizteak egiten dira eta interesa baxua izaten da. Baina etxe asko ez daude baldintza oso onetan eta erreformak behar dituztenak inbertsio nahiko fuerteak eskatzen dituzte. Jendeak jeneralean ez du horrelakorik nahi izaten.

Babes ofizialeko etxeak eta etxebizitza sozialak behar beste bultzatzen direla uste duzue?



Gure eredia burua altxatzen hasi diren Gipuzkoako udalerritxikiak dira. Instituzioak ilusionatu beharra dago, bestela husterera doaz auzoak"

JOSE ANGEL MIKEO
Angiozarko auzo alkate izandakoa

Andres Garitano: Guri kalterik ez digu egiten horrek baina argi dago edozein lekutan ezin daitezkeela eraiki. Prezio merkeagoan saldu nahi badira ezin dira herri erdian egin eta betikorra goaz, eraikitzeko lur gutxi dagoela. Egitekotan herri erditik irtenda egin behar dira.

Jose Angel Mikeo: Lur horiek tasatzerakoan edo aplikatzen dioten baremoa da Bergarako Udalerrian barruan egongo litzatekeen media. Orduan lur jabeak edozer gauza eskatu dezakete.

Amaia Marco: Lurra garestia bada ezin dira etxeak laguntzekin eraiki, ekilibrio bat egon behar da. Gaur egun ez dut uste horrelako etxebizitzak gehiegi bultzatzen direnik eta San Antoniokoak egiten direnean auskalo noiz eta non egiten diren hurrengoak.

Andres Garitano: Oraingoan, Ibargarai aldean ia 400 etxebizitza doaz. 220 bat martxan daude eta erdi salduta. Beste 180 geratzen dira. Horrek saldu orduko ziur egon beste terreno batzuk gertu egongo direla eraikitzeko.

Jose Angel Mikeo: Estetikoki babes ofizialekoak ingurunera egokitu behar dira eta horrek jaso egiten du prezioa. Ez da berdina 5 alturako etxea edo 2 alturakoa. Guk pagatu behar dugun lotura bat da hori ere, azkenean karga bat; ez da bistaren gozamenerako eta hara datorrenarendako gauza polita izan behar. Pagatzen duenaren ikuspuntutik, leku politean bizi bai baina segun karga hori zenbaterainokoa den. Gure asmoa Angiozarren bi alturako etxebizitza sozialak egitea zen, bai, baina ea zela lortzen den hori guztia.

Andres Garitano: Nekeza da babes ofizialeko etxeak bi pisukoak egitea. Horrek tope batzuk dauzka.

Amaia Marco: Zaila da baina Intxaurrendon lortu zuten; politik eta nahiko prezio onean gainera, 13 milioi ingurukoak.

Jose Angel Mikeo: Gure eredia ez

da Intxaurrendon, udalerrri handi baten barruan dago eta. Gure eredia Gipuzkoako udalerrri txikiak dira: Olabarria, Zerain, Gatzaga... nahiz eta Angiozar baino txikiagoak izan, udaletxea daukate, hori da guri falta zaigun mentalidadea, udalerrria bera guzti honetan inplikatzeko.

Olabarrian benetan etxe elegantek egin dituzte eta ezer ez zeukan kasko urbanoari herri itxura eman diote. Bertako jendea joan da bizitzera. Terrenua Udalak jarri du eta jendea bertara joateko animatu da. Angiozartik ikusten dugu Gatzaga (hil zorian zegoen herria) bere burua altxatzen ari dela... Instituzioak ilusionatu beharra dago, bestela husterera doaz auzoak. Gure borroka ez da konstruktoreekin, instituzioekin baizik.

Nukleo batzuk potentziatzeko politika dago, eta gehien ekilibratuta zegoen territorioa izatetik hainbat eskualde (Donostialdea esaterako) indartzera pasatu gara. Araban eta beste hainbat probintzian gertatu bezala, jendea hiriburutik gertu konzentratzen ari da. Herriak eta auzoak husten ari dira eta nik, behintzat, ez dut uste hori bide egokia denik. B



"Bizimoduak gora egiten duen neurrian etxebizitzek ere gora egin behar dute. Baina igoera IPCaren parekoa izan beharko litzateke"

ANDRES GARITANO
Const. Beitia



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

1998aren hariari jarraitzen diona izango ote da 1999 urtea? Aldaketa nabarmenik ekarriko ote digu? Osasuntsu ibiliko ote gara? Ala amodiotan hegan beste ezer baino lehen? Izarrei egin diegu galdera.

Izarrei

III-20 IV-20



Aries

MARITXU BARRENA

Osasun aldetik ondo izan naiz. Betiko katarroa besterik ez. Astebete ohean izan nintzen baina garrantzia gabekoa izan zen. Diru eta lanari dagokionez, gainontzeko urteetan moduan. Lanean jarraitzen dut eta hori ona da. Behar bada, zerbait gehiago gastatu dut baina ondo eutsi diogu urteari. Maitasunean ere urte ona izan da. Urte berria aurrekoa bezalako baldin bada poztuko nintzateke.

IV-20 V-21



Taurus

JUANJO NOGEIRAS

Urtero bi katarro izaten ditut eta aurten ere horrela izan da. Gainera dagoeneko zenbat irauten duten eta noiz jasan go ditudan dakit. Lanean, berriz, giro ona dago eta gustora nabil. Diruari dagokionez, aurreikusi gabeko gastu batzuk izan dira baina lana dagoen bitartean... Maitasun kontutan urte ona izan da alabatxo bat izan baitugu. Urteari bi katarro baino gutxiago izatea eskatuko nioke.

V-21 VI-21



Gemini

TOÑO RETES

Betiko gaixotasunak izan ditut aurten. Mundu guztiak arrapatzen dituen katarroak. Garrantzi handiko izan. Urte positiboa izan da alde horretatik. Lanari dagokionez, lan handia izan dugu. Langile kopuru murrizta gaude eta lan gehiago tokatzen zaio bakoitzari. Maitasun kontuetan ondo nago. Emaztea hobetotxo portatu beharko litzake. 1999ari mundu guztiarentzat gauzak ondo joan daitezzen eskatuko nioke.

1999an zer?

OSASUNA Otsailetik uda sasoirarte, bizitasun handiko garaia izango duzu. Abuztuan krisi txiki bat izan dezakezu.

LANA Arazoak izango dituzu martxotik aurrera negozioetan. Lanbidean berehala aldaketak ager daitezke eta ondorioz kezka handiak. Udaran egoerak hobertzeko egingo du. Bizitza sozial handia egin, lagunek ate asko zabalduko dizute eta.

MAITASUNA Ekainean, maitasunak hobertzeko egingo du faltan botatako egonkortasuna helduko baita.

OSASUNA: Lanak eta ardura berriek fisikoki erangigo dizute. Nekatuta sentitzen bazara ez arduratu, normala da. Uda eta udazkena dira sasoi hoberenak.

LANA: Urte korapilatsua. Lanez aldatzeko beharra duzun galdetuko diozu zeure buruari. Udazkenean lan eta ekonomia egoerek hobertzeko egingo dute.

MAITASUNA: Bikotea bilatzeko aukera handiak. Bikotea baduzu, eztabaida handiak izango dituzue otsailetik aurrera. Ez konfunditu sexua maitasunarekin.

OSASUNA: Otsailean, martxoan, apirilean eta abenduan kontu izan kirol eta biolaiekin. Atsedena hartu eta ondo jai. Gainerakoan, urte osoa primerakoa.

LANA: Urtarrila eta otsaila onak izango dira. Urtarrila lagunei mesedeak eskatzeko aprobetxatu. Otsailean lankideekin zure sinpatiatatik mirestuko zaituzte.

MAITASUNA: Ezkonduta bazaude eta seme-alabak badituzu, une pozgarriak igaroko dituzu etxekoekin. Bikote bila bazabiltza, itxaron udazkenerarte.

Nereia

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak
Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Gabon zorientsuak
izan ditzazuela!

ahotsa

VI-21 VII-22



Cancer

KRISTINA MARKINA

Osasunean urte nahiko ona, bizkarreko arazoak izan ditudan arren. Zaintzen hasi naiz eta asko igartzen dut. Negu sasoiari betiko katarroak baino ez ditut izan. Lan handia izan genuen joan zen ikasturtean. Gora behera handiak suertatu ziren. Urte berriari tabakoa uztea eskatuko nioke. Gehiegi erretzen dut. Gainontzekoetan egoera berdinarekin gustora egongo nintzateke. Lanean lasaiago gababiltza, hobe.

VII-22 VIII-23




Leo

ANA MOZOS

Osasun, lan eta maitasun kontuetan urte ona izan da. Alerjia bat besterik ez dut izan. Bi urtean behin analisiak egiteko ohitura daukat, nahiko izan ez arren. Lan arloan bereziki joan zen urtekoa baino urte hobe izan da. Lan handia izan dugu baina bufetean lasai eta gustora aritu gara. Maitasunari dagokionez ere oso urte ona izan da. 1999a horrelakoa izango balitz poztuko nintzateke.

VIII-23 IX-23



Virgo

AITZOL MUJIKA

Ez dut gaixotasun berezirik izan. Mundu guztiak izaten dituen katarroak besterik ez. Ikasketak ondo joan dira eta lanean ere aritu naiz. Irabazitakoarekin musika ekipoa erosten dihardut eta ez zait kalean gastatzeko gehiegi gelditzen. Aurten ez dut kontzerturik eskaini abestiak gertatzen aritu naizelako. Ea 99an kontzertuak eskaintzeko zortea daukadan. Maitasunean ere urte ona izan da.

1999an zer?

OSASUNA: Fisikoki eta psikologikoki indartsuago ibiliko zara; aprobeixatu ezazu urtea nekagarria izango baita.

LANA: Babes osoa eta arrakasta handia. Zuk eraikitako lan talde bat zuzenduko duzu. Ardura gehiegi izango dituzu. Urte orokorrean ona izango bada ere, uda eta abendua izugarri onak.

MAITASUNA: Urtarrilean, bikotearekiko harremana primerakoa. Otsailean okerrera egingo du. Bikote gabe bazaude, erromantze polita hasteko aukera.

OSASUNA: Une gogorak martxo bukaeran eta abuztu amaieran. Udazkenean zaindu beharra daukazu, kirolean eta janarian, batez ere.

LANA: Seguraski lan aldaketa izango duzu. Aurreko urteetan ordaindu gabe utzi duzuna ordaintzeko garaia heldu da. Zorte handia diru kontuetan.

MAITASUNA: 1999an pasioa izango da nagusi zure bizitzan baina kontu handia izan behar duzu, kontrolatzen ez bazara, arazo larriak izan ditzakezu eta.

OSASUNA: Nerbioetako gaixotasunak izateko arrisku handia. Udazkenean hobera egingo duzu baina hala ere kirola egin eta janaria zaindu beharra daukazu.

LANA: Urte hasieran gauza asko egiteko irrika izango duzu baina lankide eta nagusien babesa igarriko ez duzunez, animoak jeitsi daitezke. Martxotik aurrera, zure etorkizuna ziurtatuko duzu.

MAITASUNA: Burua beste nonbait izango duzu baina hala ere, maitasun berriak ezagutzeko urte aproposa da.

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4 behea ☎ 943 76 18 93



Ateak eta zokaloak, horma armairuak, koadroen enmarkazioa, era guztietako moldurak, apalak...

ESKULANETARAKO GAIAK

Gabon zorientsuak



IX-23 X-23



Libra

BEGOÑA ITURBE

Ez dut osasun arazorik izan, ezta katarrorik ere! Bizkarreko min piskat baina garrantzi handi gabekoa. Lan aldetik, ikasturte astuna hasi genuen. Ikastetxe-ko hiru urteko haurrek lan handia eskatzen dute. Etxean bi haur ditut eta horiek ere ez dira gutxiago. Maitasunari dagokionez, ezkondua nago eta pozik bizi naiz. Urte berriari, ikasturtea lasaigoa izatea eta gainontzeko gaietan horrela jarraitzea eskatuko nioke.



X-23 XI-22



Scorpius

ARANTZAZU AGIRRE

Ez dut gaixotasunik izan, ezta katarrorik ere. Kirola egiten eta zaintzen aha-legendintzen naiz. Urtea amaitu baino lehen lan berria lortu dut eta pozik nago. Lan berriari ondo joan dadin eskatuko nioke urte berriari. Maitasunari dagokionez, ardoari gertatzen zaiona gertatzen zait, urteak pasatzen diren heinean gero eta hobeto gabilta eta horrela jarraituz gero, ondo baino hobeto gaudē.



XI-22 XII-22



Sagittarius

JUSTINA ELEXPURU

Primerako urtea izan da osasunaren inguruan. Lanean, iaz bezain gogorra. DBH oraindik berri samarra da eta bertara egokitzeko lan handia egin behar izan dugu. Maitasun kontuetan egoera ona igarotzen ari naiz eta hau errepikatzea espero dut. Urteari osasun berbera mantentzea, lana gutxitzea, munduko gosea desagertzea eta Euskal Herriko egoera esperantzagarria gauzatzea eskatuko nioke.

1999an zer?

OSASUNA: Martxoan, apirilean eta maiatzean zure osasuna arriskuan ipini dezakeen edozer gauzatik ihes egin beharko duzu. Udazkenean hobeto sentituko zara baina hala ere argi ibili.

LANA: Urte hasiera ona baina udaberrian poltsikoan zuloa igarriko duzu. Irailean adiskideen laguntza izango duzu.

MAITASUNA: Harreman egonkorra bilatu nahi izanez gero, zorteak ez dizu huts egingo. Kontuz abentura iragankorrekin. Maitasuna eskatuko diozu bikoteari.

OSASUNA: Urtean zehar osasun bikaina. Baina jateko gogo handi hori etsai bihurtuko da, ekintza asko egingo baitutuz.

LANA: Aldaketak lan eta ekonomian. Ingarukoei mesedeak egin beharko dizkiezu, honek bere fruituak emango ditu.

MAITASUNA: Aldaketa handiak suertatu daitezke eta hauen eragile, harreman jakin bat izango da. Martxoan eta apirila bitartean zu baino zaharragoa den pertsona batetaz maiteminduko zara.

OSASUNA: Urte osoan zehar zaindu beharrra daukazu. Bereziki gorputza eta adimena.

LANA: Hasieran musika eta artearekin harremanetan dauden lanbideetan arituko zara. Finantziario aukera handiak.


MAITASUNA: 1999 maitasun kontuetan aritzeko urtea duzu. Urte hasieran familiarri arreta berezia zuzenduko diozu baina udaberrian, zure burua izango da adura nagusia. Maitasun abentura bat izateko aukera.

URTE BERRI ON!


Mekolalde taberna

ABENDUAREN 25EAN (Natibitate eguna) eta
URTARRILAREN 1EAN ITXITA

Mekolalde auzoa z/g Tf. 943 76 50 18



XII-22 I-20



Capricornus

JUAN ANTONIO UNZURRUNZAGA

Osasun kontuetan duela bi urtetik gaur egunerarte ez dut ezer larririk izan. Lan gehiegi izan dugu. Alde batetik bestera ibiltzek neka-neka eginda lagatzen zaitu, batez ere mugimendu handia dagoelako. Maitasunari dagokionez, berriaz, oso zorionsua naiz. Emazte bikaina eta alaba paregabeak ditut. Urteari orain arte bezala jarraitzea eta mundu guztiarentzat osasuna eta bakea eskatuko nioke.

I-20 II-18



Aquarius

MAITE LARRAÑAGA

98a urte ona izan da. Aurten ezkondu naiz eta oso esperientzia polita izan da niretzat, horrek gastu batzuk suposatzen dituen arren. Bestalde, lanean jarraitzen dut eta lana dagoen bitartean ezin naiz kexatu. Osasunari dagokionez, gripea eta bizkar arazoak izan ditut eta behin hatzamarra apurtu nuen baina garrantzi handirik gabekoak izan dira. Egun gutxi barru hasiko den urteari horrela jarraitzea eskatuko nioke.



II-18 III-20



Piscis

XABIER LATORRE

Txertaketa bat izan nuen eta errekupe-ratzeko itsasoko ura oso komenigarria nuen, Kanariar irletara joan nintzen, beraz, ezinhobe. Ez dut katarrorik eta bestelako gaixotasunik izan. Lanean gustora nabil, lan asko egin arren. Gastu batzuk izan ditut baina datorren urtean ez dut uste gastu hauek izango ditudanik eta ez naiz kexatzen. Maitasunari dagokionez, datorren urtea aurtengo baino txarragoa ez bada, pozik.



1999an zer?

OSASUNA: Urtea indartsu hasiko duzun arren, zaindu beharra daukazu. Aldaketak udaberrian iritsiko dira.

LANA: Zure kabuz lanean hastea bururatuko zaizu eta ondorioz lanpostua arriskuan jarriko duzu. Eskaintza asko egingo dizkizute.

MAITASUNA: Zure bikoteak baino interes handiagoa jarriko duzula irudituko zaizu. Pazientzia izan. Bikote bila bazabiltza zaharragoa edo iraganeko norbait azalduko da.

OSASUNA: Arazo handirik gabeko urtea. Erantzukizunak betetzeko indar handia beharko duzu. Lanbideak eta familiakoek indargabetuko zaituzte.

LANA: Martxoan lanez aldatu eta gauza berriak probatzeko gogo. Familiak bultzatuta iturri ekonomikoak ziurtatzen saiatuko zara.

MAITASUNA: Bikotearekin izango dituzun ez ulertzeak konpondu beharra. Behin betiko harremanaren bila ibiliko zara. Gauza ezberdin asko gertatuko zaizkizu.

OSASUNA: Ongizate fisiko eta psikikoak lehenetasuna. Janari garbiak eta substantzia toxikoak baztertzeak ondorio onak izango dituzte buru eta gorputzean.

LANA: Martxoan lan sasoi berria hasiko duzu. Maiatzean lan eta ekonomi egoera ezinhobe. Lanez aldatzeko aukera. Arazo ezatsegin bat konpondu beharra.

MAITASUNA: Erlazio bat izan arren, martxoan askatasun eske egongo zara. Uda-arte ezulertze handiak. Iraganeko erlazioak gogoratzeko garai ona.



*Lurrindegia
Edertze aretoa*

Ibargarai 10. Tf. 943 76 00 85

alga

*Gabon
zoriontsuak
opa
dizkizugu.*



LUISA AGIRREZABAL

Larre motzean hazitakua

1896ko urriaren 9an jaio zen San Antonion ■ 102 urterekin bakarrik bizi da eta etxeko jirak berak egiten ditu ■ Bi seme eta bederatzi biloba ditu ■ San Pedro kalean bizi da ■ Margola tintorerian lan egin zuen 1984ra arte

Bergarara sarri joaten naiz. Edozenbat arrazoi-rengatik nere bigarren herria da Bergara baina, arrazoi guztien gainetik, nere aitxitxa zana, Zirriako Mendizabal, Amatiño baserrian jaio zalako.

Oin hurrengo, Santamainako hilletaren batera joan nintzan atzenengoan, Luis Payros ikusi eta agurtu nebana. "Ze moduz ama?" -galdetu notsan. "Ondo baina makal xamar azken bolada honetan -erantzun zostan. Etxebarruan jausi ta mokorra dauka erdipurdika". Eta nik bapatean, askorik pentsatu barik baiña intentziñorik onenaz esan notsan: "Joño, ba pozten naiz!". Jakina, ni ez ninduan poztu Luisa Payrosenekua makal zegoela jakiteak, gutako beste

edozein moduan Luisa be batzuetan mindu eta gaixotu egiten dala jakiteak baino. Behin esan zostan berak hiru mediku izan dituala baina ez dauala inoiz bat bera ere behar izan.

Ehunda bi urte ez dira gero gau erdiko ahuntzaren eztula. Luisak beste inork baino arrazoi gehiagoz esan leike Eibarko larogitamar urteko agure zirikatzaile batetik behin esan zebana: "Oin eztitxuk lehengo denborak. Oin edozein kakaumek jukaz larogei urte!".

Gizurra dirudien arren,

Luisak hirurogeitamar urte inguruan zituan nik ezagutu nebanean. Nere aita Margola tintoreriaren jabe zan eta Luisak San Pedro kalean zeukan dendan erropak jasotzen zituan. Gaztetan, lanean hasibari eta, aitzak berri herri bialtzen ninduan erropa zikin bila eta holaxe joaten nintzan Bergarara be Luisarengana. Etenbako langile fina zan, ez zan sekula esku hutsean gelditzen, barriketan be salada askoa. Askoa maite ninduan eta maite nau oindiño be.

Atzenengo bider oin dala pare bat urte edo egon nintzan bere etxean. Bakar bakarrik zegoan eta sekulako harrerera ona egin zostan. Baita kafetesnea eta galletak emon be. Ez neuke besterik nahi 50 urte barru ni ne

be kafetesnea inori berotzeko moduan egotea.

Luisa beti ezagutu izan dot nik urtetsua baina, aldi berean, beti gazte, beti lanerako prest, beti besteen mesedetan mortalak egiteko gertu, beti pozik. Eta izakera hori ez dago merkatuan salgai. Hori norberarengana dago. Eta Luisak behintzat ondo asmatu dau. Behar bada, bera gerra aurreko materiala dalako. Eta gainera diñot nik, larre motzean hazitakua.

AMATIÑO
Kazetari

Luisa beti ezagutu izan dot urtetsua baina beti gazte, lanerako prest, beti pozik

MUJIK **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE** **FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!



Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



zorionak denoi!



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

UGARTE

AROSZTEGIA



ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



Gabon jai zoriontsuak denoi!

San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.
Telefonoa eta faxa: 76 54 91

"la Caixa" jakinarazten dizu Fraiskoazuri kaleko 7.ean,
Bergarako sukurtsal berria ireki duela.
Bide batez, Gabon zoriontsuak
eta urte berri on bat opa dizuegu bergarar guztioi.



"la Caixa"

Cambridgeko Unibertsitatetik itzultzean, 1987 aldera, ezagutu nuen Jesus Mari eta esan behar dut berehala *sintonizatu* genuela. Handik gutxira, Kanadara alde egin zuen eta beste inorekin egin ez dudana gauza bat egin nuen orduan, Jesus Mariren mekanika kuantikoko klaseak nire kargura hartu hain zuzen. Orduetik askotan kolaboratu izan dugu elkarrekin. Oinarrizko zientziaren aspektu askotan ez dago desberdintzerik fisika eta kimikaren artean. Materien teoria kuantikoa kimika eta fisika bat datoz askotan eta beraren moduko kimiko kuantiko bat eta ni bezalako materia kondentsatuaren fisiko baten artean ez dago zubiren beharrik elkar topatzeko.

Lanerako duen gogo handia, interesa, ezagutza, intelijentzia, abilezia edota zientziari buruzko nazioarteko ikuskera gorai-patuko nituzke. Elkarlan zientifikorako oso lankide atsegina da eta beharrezko kalitate bat ere badauka, ideiak beldurrik gabe jaurtitzeko alegia. Asmatu ahal izateko ezinbestekoa da hori. Bestalde, beti ere albokoei laguntzeko prest azaltzen da.

Lanetik kanpo berdina da Jesus Mari, egiazkotasu-

naren seinale. Edonora heltzeko kalitateak biltzen ditu eta, hori gutxi balitz, bere lan esparruan nazioarteko esperientziarik ez zaio falta. Xabier Maria Munibe saria Jesus Mariri ematea erabaki zuzena izan delakoan nago; sariak Jesus Mari prestijiatzen du eta Jesus Mari saritzeak sariari berari prestijioa ematen dio.

Estatu Batuetako aberastasanaren erdia zientzia edota teknologiarri zor zaio-

Lanerako duen gogo, ezagutza, intelijentzia, abilezia eta zientziari buruzko nazioarteko ikuskera gorai-patuko nituzke

la adierazi du Clintonek. Etor-kizuneko ekonomia ezagutzan oinarritutakoa izango da eta ongizatea zientziari esker lortuko da. Herrialde bakoitzak bere talentuaren arabera lagunduko du horretan. Ezin da egin pertsona

baten eta aberastasun horren arteko korrespondentzia baina ezin da ukatu zientziak kolektiboarengan duen eragina. Ugalderean lana hor kokatzen da.

Dena den, ez diot lore gehiago botako Jesus Mariri. Aspalditik jokatzeko daukagun pala partiduaren zain nago. Bera gazteagoa izanda ere, nekez ikusten dut bergarar batek Lekarozen ikasitako nafar bati palan irabazi diezaiokeenik...

PEDRO MIGUEL ETXENIKE
Asturiaseko Printzea Saria



JESUS MARI UGALDE

Elkarlanerako lankide atsegina

- 40 urte ■ Bergararra ■ Kimika Fisikoko katedraduna
- Eusko Legebiltzarraren eta Euskalerraren Adiskideen Elkartearen Xabier Maria Munibe Saria jaso du aurten
- Ibaetako Kimika Fakultateko dekanordea

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa
URTE BERRI ON!

Amillaga 1 (B Pabiloia)

☎ 943 76 28 04

BERGARA

Urteko albisteak

Kultura

■ Urtarrilak 30

San Joxepe jubilatuen elkarteko abesbatzak bigarren saria eskuratu zuen VII. Euskal Herriko Zahartzaroaren Abesbatza Erakusketan. Gasteizko Udalak antolatutako lehiaketan Euskal Herri osoko lau abesbatzek hartu zuten parte eta finala Antzoki Zaharrean jokatu zen. Nicomedes Larrañagak zuzendutako abesbatzak bigarren saria ekarri zuen Bergarara.

■ Urtarrilak 3

Juan Martin Elexpuruk Debako Udalak antolatzen duen Tene Mujika ipuin lehiaketako lehen eta bigarren sariak eskuratu zituen. "Despedida" eta "Bueltan datorrena" lanengatik 175.000 pezeta eskuratu zituen.

■ Urtarrilak 30

Assholes eta The Elevators rock talde gazte bergararrek debuta egin zuten jendarean Pol-Polen, San Juan Bosko eguna ospatzeko.

■ Martxoak 9

Mikel Erentxun Duncan Dhu taldeko abeslariak Jam aretoa aukeratu zuen "Acrobacias" izeneko bakarkako diskoaren zuzeneko emanaldiak entsaiatzeko. Astebete eman zuten Jamen entsaiatzen eta bazkaltzen.

■ Martxoak 14

Bergarako Orfeoia eta Opus III Perkusio Taldeak kontzertua eskaini zuten Miramomen, Euskadiko Orkestraren egoitzan. Bi taldeek, beste hainbat emanaldi eskaini dituzte urtean zehar elkarrekin, esaterako, Santa Zezilia egunean.



Sarituak eta epai-mahaiko kideak. Sari banaketa ekitaldia San Balentin egunean egin zen Kartzelan.

134 AMODIOZKO KARTA jaso ziren **Amodiozko Gutunen VI. Berrigara Lehiaketan**. **Adur Ezenarro** 20 urteko ordiziarrak irabazi zuen lehen saria "Serora" izeneko gutunarekin. Bigarren saria Hazparneko **Katti Pocheluk** (16 urte) jaso zuen eta bergarar onenarena, berriz, **Itziar Larrañagak** (23 urte). Euskal Herri osotik bidalitako kartak jaso ziren. Sari banaketa ekitaldia San Balentin egunean egin zen Kartzela Zaharrean. Azaroan, bestalde, "**Maitasunez..., amodiozko gutunak 1993-1998 eta piropoak**" liburua aurkeztu zen. Gutunen lehiaketako sei edizioetako saritutako gutunak eta beste hainbat piropo eta maitasun deklarazio biltzen dituen liburuak arrakasta handia izan du.



Argazkilariak Bergaran

Euskal Argazkilarien Federazioak urteroko bilera egin zuen Bergaran **martxoaren 7an**. Kultur Etxean bildu ziren Euskal Herri osoko 40 bat argazkilari eta herriko kale eta etxeak ezagutzeko egindako bisitaldiaren ondoren, **Pertxa elkartean bazkaldu** zuten. Era berean, Argizaiola lehiaketako sariak banatu zituzten. **Benito Cantero** bergararrak akzesita jaso zuen.



Don Romanen garaian-eta, inportanteena indartsu kantatzea zen; orain, teknika landu dugu eta kantatzen ikasi dugu //

Mila Andueza, Orfeoiko presidentea. *Urtarrilak 9.*



Txikitan, trenea eskatzen nuen baina ez zidaten ekartzen. Duela 5 urte makina bat oparitu zidaten eta maketarekin hasi nintzen //

Miguel Fernandez, maketa egilea. *Urtarrilak 23.*

BERGARA NAZIOARTEKO TXOTXONGILOEN TOPALEKU

Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko IV. Mostra izan zen Bergaran **apirilaren 23tik 26ra arte**. Euskal herritik, estatutik eta munduko hainbat tokitatik etorritako 11 taldek hartu zuten parte Taun-Taunek antolatutako jaialdian. Gaztetxoei eta helduei zuzendutako erakusketak ere antolatu ziren.



Era guztietako txotxongiloak. Oso arrakastatsua eta bariatua izan zen jaialdia.



Haurren Euskal jaiak 25 urte

Euskal Jaiaren XXV. edizioan 550 bat dantzari gaztetxo bildu ziren Bergaran **maiatzaren 24an**. Aranzadi Ikastolarekin batera, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaitik etorritako 14 talde bildu ziren. Bestalde, **urriaren 10ean** Euskal Jaiaren XXV. urteurrena ospatzeko jaialdia izan zen Udal Pilotalekuan. Xamatzek, Aranzadi Ikastolako dantza taldeak eta Leongo Virgen de la Guía jota taldeak hartu zuten parte.



ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Fotokopiak **Planoen kopiak**
Plastifikazioak **Kautzozko zigiluak**
Fax zerbitzua **ETA KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN**
Enkuadernazioak **DIPOSITIBETATIK NAHIZ NEGATIBOETATIK**

Martxoak 23

Eskualdeko Lehen Arte Topaketa antolatu zuten Beartek eta Arrasate Margo Taldeak, Abdon Juaristi pintorearen omenez. Bergarako Kultur Etxean antolatutako erakusketan Arrasate eta Bergarako artisten 54 lan izan ziren ikusgai.

Martxoak 28

Udaberri-udako moda erakutsi zuten Miguel Altuna Institutuko ikasleek Jam aretoan. Ikasbidaira eta Reimsera joateko sosak batzeko helburuarekin desfilatu zuten pasarelatik aretoa bete zuten ikusleen aurrean.

Apirilak 17

Edu Muruamendiarez eta Uxue Otalora bergararrek, Euskal Koreografo Berrien II. Erakusketan hartu zuten parte Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Eduk "Akilimarro" koreografia aurkeztu zuen; Uxuek, ostera, "Sokatira" izenekoa.

Maiatzak 29

Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta herriko hainbat abeslarik prestatutako Evita musikalaren moldaketa aurkeztu zen Udal Pilotalekuan Pazkuetako eguakitzean. Aretoa lepo bete zuten ikuskizuna gertutik jarraitu nahi izan zutenek.

Ekainak 6

Euskara Zerbitzuak antolatu zuten duen XIII. Literatur Lehiaketako sariak banatu ziren ekainaren 6an Zabalotegiko aretoan. Lehiaketara 233 lan aurkeztu ziren.



Maite Aurrekoetxea

Bilbotarra, 27 urte. Musika Eskolako Orkestra Sinfoniko zuzendaria otsailetik. Akordeoi titulu du. Konposizioa ikasten ari da Gasteizko Kontserbatorioan; orkestra zuzendaritza Madrilan.



Itziar Larrañaga

Bergararra. Amodiozko Gutunen VI. Berrigara Lehiaketan bergarar onenaren saria jaso zuen otsailean "Urrin baina gertu" izeneko kartarengatik.



"Bernar". Bernar laburmetraiaren egileak: zuzendariak, aktoreak, teknikoak...


FILME LABUR SARITUAK

Asier Altuna eta Telmo Esnalen "Txotx" pelikula laburra saritu zuen Euskal Filmategiak maiatzean. Euskal pelikula laburrik onenaren saria jaso zuen (500.000 pezeta). Bestalde, 1997 eta 1998an zehar beste hainbat sari jaso ditu Asier Altunaren lehen laburmetriak Euskal Herriko eta estatuko hainbat zine jaialditan. La Habanako zine jaialdian ere izan da orain dela gutxi. Urtean zehar hainbat jaialditan saritua izan den beste labur bat, **Xabier Alberdi**, Jon Andueza eta Aitor Agorriaren "Bernar" izan da. Bi laburmetriak eta "Laugarren galeriatik" Kartzela Zaharrean eskaini ziren uztailean.



Pintore sarituak

Juan Jose Altunak Lehen Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa irabazi zuen maiatzean eta, beraz, Pazkuetako zekorketa iragartzeko kartelean erabili



zuten bere margo-lana. Bestalde, Antzuola eta Bergarako Jubilatuen II. Kultur Hamabostaldia iragartzeko antolatutako lehiaketa ere berak irabazi zuen. **Dani Laskurainek**, ostera, Mariaren Lagundiaren 200. urteurrena ospatzeko antolatutako logotipo lehiaketa irabazi zuen.

Tapizeriak

Moketak

Alfonbrak



Kruz Gallastegi 3. ☎ 943 76 07 37

Gazteendako, umeendako eta ume jaioberriendako altzariak eta dekorazioa

GABON ZORIONTSUAK!



Eurovisionera aurkeztu dudakantua amodio iragankorrari buruzkoa da. Eurovisioneko kantuen ikutu komertziala dauka //

Mikel Herzog, kantaria.
Martxoak 6.



Gero eta erakusketa gehiago ikusten dira tabernetan. Berlinen-eta erakusketa asko egiten dira tabernetan //

Oihana Garitano, pintorea.
Apirilak 17.



Haur eta gaztetxo piloa Udaberriko kontzertuan

Musika Eskolako ikasleek Udaberriko jai kontzertua eskaini zuten **ekainaren 14an** Udal Pilotalekuan. Taldez-taldez urtean zehar landutako uzta erakutsi zuten jendaurrean. Bukaeran, guztiak batera (150 lagun inguru) **"Sonrisas y lagrimas"** filmeko "The sound of music" interpretatu zuten. Jai egunari amaiera emateko, Musika Eskolako ikasleek eta irakasleek herri bazkaria egin zuten Espoioian.

GERRA ZIBILA: ERAKUSKETA BIKAINA

"Bergara Gerra Zibilean. 1930-1939" izenburupean, Ondo Bihurtu taldeak prestatutako gerrari buruzko erakusketa zabaldu zen **maiatzaren 29an** Udaletxe-ko Pleno Aretoan. Bertan gerrako eta gerra aurreko urteetan Bergaran eta inguruan izandako gertaerei buruzko hainbat material bildu ziren. Besteak beste, gerrako materiala, banderak, txartelak, esku-izkribuak, gutunak, argazkiak edota Elgeta eta Elorrioko sektoreen maketa. Erakusketa jende askok bisitatu zuen. Ondo Bihurturen eskutik, gerrari buruzko pelikulak ere eskaini ziren jaien ostean Novedadesen.



Gerrako protagonistak. Gerra zibilari buruzko erakusketan, gerraren lekuko izan ziren batzuk.

Kosmetika.
Oparigaiak.
Eder gela.
Bio solariuma.

ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON

Igaro
IG

Usaindegia

IGARO USAINDEGIA, BARRENKALEA 35. TF. 943 76 17 27

■ **Ekainak 26**

Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako Kirol Argazkien VIII. Lehiaketako sariak banatu ziren Kultur Etxean. Zuri-beltzean Javier P. Fernandezek eraman zuen lehen saria eta herriko onenarena, ostera, Benito Canterok. Koloretan, Juan J. Camachok lehen saria eta Hilario Azkargortak herriko onenarena.

■ **Uztailak 18**

Hego Euskal Herriko lau hiruburu eta Iparraldeko bost abesbatzak kontzertua eman zuten Udal Pilotalekuan. "Euskal Herria kantuz" izenburupean, Gasteizko Alaitz, Etxarri Aranatz, Gernikako Andra Mari, Baionako Xaramela eta Aritzeta abesbatzak eskarrekin kantatu zuten Bergaran.

■ **Irailak 15**

"Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak" bildumako "Txondorrek. Karobiak. Elurzuloak" Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiolaren liburua aurkeztu zen Udaletxean.

■ **Urriak 9**

Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketako sari banaketa izan zen Kultur Etxean. Benito Cantero, Agustin Gurrutxaga eta Zigor Ruiz de Eginoren bergararren argazkiak sarituak izan ziren.

■ **Urriak 13**

Bergara eta Antzuolako jubilatuen II. Kultur Hamabostaldia hasi zen. "Beti emon leike pauso bat aurrerago" lemapean, besteak beste, hitzaldiak, erakusketak eta iteerak izan ziren azaroaren 1era arte.

protagonistak



Eva Conget

Donostian antolatutako bolillo-lanen erakustaldian saritua izan zen maiatzean. Estatu osoko 812 lagun lan artean bost onenak aukeratu zituen epai-mahaiak, horien artean bergararrarena.



Virginia Imaz

Oihulari Klown taldekoari, *Cirque du Soleil* ospetsuarekin lan egiteko aukera heldu zitzaion apirilean. Ekainean Kanadara abiatu eta harrezkero Estatu Batuetan dabil.



Jaiotetxe aurrean. Koldo Eleizalderen jaiotetxera bisita egin zuten uztailaren 27an

KOLDO ELEIZALDE GOGOAN

Uztailaren 24an 75 bete ziren Koldo Eleizalde hil zela. Hordela eta, bergarar euskaltzaleari buruzko liburua, "Luis de Eleizalde. Un vasco polifacético" izenburukoa, Sabino Arana Fundazioak argitaratua, aurkeztu zen Bergarako Udaletxean **uztailaren 27an**. Ekitaldian, Antton Aurre Sabino Arana Fundazioko presidentea, Esteban Antxustegi liburuaren egileetako bat, Carlos Bastero Eleizalde, bergarar intelektualaren biloba eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren. Liburuaren aurkezpenaren ondoren, Koldo Eleizalderen jaiotetxe aurrera, Goenkalerara, bisita egin zuten bertaratuek.



Dantza sueltoko txapelkunak

Janire Urbieta bergararrak eta Xabier Azurmendi zegamarrak irabazi zuten Gazteentzako **Euskadiko Dantza Suel-**

toko Txapelketa maiatzaren 31n Bergaran. Bestalde, Aitzol Ena bergararra eta Nagore Ziganda hernaniarra bigarren geratu ziren Seguran 14 urtetik gorakoen Euskadiko Dantza Sueltoke Txapelketan; Maite Lazkano eta Jon Aranburuk laugarren egin zuten eta Asier Ena eta Irantzu Luizarralde seigarren



ERLOJUDENDA

Ondo pasau Gabonetan!!

AINH



A

Boni Laskurain 2 ☎ 943 76 47 40

BITXITEGIA



Sao Pauloko Arte Eszenikoetako irakasle batek zioen gurea zela Uburik onena, poesia eta politika ondo nabasten ditugulako //

Itsaso Azkarate,
Taun-Taun taldekoa. Ekainak 19.



Ematen diguten lanerako merke kobratzen ditugu marrazkiak, balere pozik nago. Autoan beti eramaten dut materiala bozetoa egiteko //

Ricardo Otaño, lumatxo-marrazkien egilea. Urtarrilak 5.



Ekitaldien aurkezpena. Irailaren 18an hasi ziren ospakizunak.

ORFEOIAK 75 URTE

Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldiak aurkeztu ziren **irailaren 18an** Udaletxeko Pleno Areatan. Orfeoia hainbat ekitaldi antolatu ditu 1998 eta 1999-ra. Besteak beste, datorren urteko maiatzean *Oliver!* musika-antzerki ikuskizuna eskainiko du; bestalde, diskoa kaleratuko du eta baita liburua ere. **Abenduaren 15ean, Orfeoia-ren kantuak biltzen dituen disko-konpaktoa** aurkeztu zen. Orfeoia 75. urteurrenako logotipoa Rikardo Azkargora pintoreak egin zuen.

ZAIAZKO BIDEO-KLUBEAN GEHIEN ALKILATUTAKO BIDEOAK

1. Airbag
2. Full Monty
3. The Game
4. Medidas desesperadas
5. El quinto elemento
6. Mentiroso compulsivo
7. Chacal
8. Jovenes aventureros
9. Scream II
10. Flubber y el profesor chiflado

NOVEDADES ARETOAN GEHIEN IKUSI DIREN PELIKULAK

1. Titanic. 4.000 ikusle
2. Mejor... imposible. 1.700
3. 7 años en el Tibet. 1.500
4. Salvar al soldado Ryan. 1.300
5. Torrente. 1.250
6. Seis días, siete noches. 1.200
7. Godzilla. 1.100
8. Los amantes del Círculo Polar. 1.000
9. Se lo que hicisteis... 800
10. Abre los ojos. 750

IRALA BIDEO-KLUBEAN GEHIEN ALKILATUTAKO BIDEOAK

1. Titanic
2. Full Monty
3. Scream 2
4. L.A. Confidential
5. Airbag
6. Mejor... imposible
7. El pacificador
8. El indomable Will Hunting
9. In & Out
10. La boda de mi mejor amigo



INGELES

IKASTARO INTENTSIBOAK

FRANTSESA

ALEMANA

Urtarrilaren 18tik martxoaren 26ra.

- BI HILABETE ETA ERDIKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU ETA ERDI.
- GOIZEZ NAHIZ ARRATSALDEZ.

ETA BESTE HAINBAT IKASTARO ERE BAI



INFORMAZIOA:

Begarako UNED. S. Martin plaza z/g (3. pisua)

☎ 943 76 06 87

Matrikula-epea urtarrilaren 11tik 15era!

Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30.

■ **Urriak 16**

Azkona anaien "Bergara 1926" filme laburra estreinatu zen Novedades aretoan. Pelikula Euskal Filmategiak berrituzuen eta bideo formatoan kopia egin ziren jendeak eskuratzeko.

■ **Azaroak 28**

Juan Martin Elexpuren azken liburua, "Krabelina beltza" nobela erotikoa, aurkeztu zen. Era berean, Txalapartaren "Literotura" saileko beste liburua, "Euskal idazleen ipuin erotikoa" izenekoa, ere aurkeztu zen. Bertan, Jose Mari Etxanizen ipuin bat agertzen da: "Emakume-itsasargia".

■ **Azaroak 30**

Bergarako Artisten Elkar-tearentzat (Beart) Bolun kultur gunea egokitzeko 18 milioi bideratzea erabaki zuen Udalbatzak. Proiektua oraindik onartzeke dago.

■ **Abenduak 4**

Bergarako kirol munduko pertsonaien argazki erakusketa zabaldu zen Kultur Etxean. Agustín Gurrutxaga eta Benito Canterok ateratako 39 erretratu izan ziren ikusgai.

■ **Abenduak 18**

Bergarako pintoreen erakusketa zabaldu zen Kultur Etxean.

■ **Abenduak 19**

Udal Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak, Aritzetak eta Orfeoak Gabonetako kontzertua eskaini zuten Udal Pilo-talekuan.



Ainhoa Agirreazaldegia
Bertsolari bergararrak irailean jokatu zen Bertsolari Gazteentzako Lizardi Sarian, 2. postua lortu zuen. 15 bertsolari aritu ziren. 1995ean txapeldun geratu zen.




David Azurza
Orfeoiko zuzendariak, urrian izandako XXX Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan, 1. saria eskuratu zuen haur abesbatzandako konposizioen sailean, "Bost joku zerutiar" lanarekin.



DURANGOKO LIBURU ETA DISKOEN AZOKAN

Bergara eta Antzuolako liburu, disko eta aldizkariak, Liburu eta Diskoen Durangoko 33. Azokan izan ziren abendu hasieran. Bergarako Udalak salmenta postua jarri zuen, eta Topaguneak jarririkoa koan BERRIGARA astekaria ere izan zen ikusgai. Bestalde, Juan Martin Elexpuren azken nobela, "Krabelina beltza" nobela erotikoa, salduenetakoa izan zen.




Kiñu

ARGAZKIDENDA

Urte berri on!!

Barrenkalea 35. Telefonoa eta Faxe: 943 76 58 05



Afizio honekin disfrutatzen jarraitzen dut. Egunean 4-5 ordu ematen ditut marrazten, domeketan ere bai //
Jose Mari Arteaga, lumatxo-marrazkigilea. Uztailak 3.



Gauza guztiek alde postiboa eta negatiboa dute; gauza negatiboe-tatik ere ikasten da. Ni gustora nago eta ez naiz ezertaz damu //
Alberto Arruti, argazkilaria. Azaroak 6.

DISKO SALDUENAK


EUSKAL MUSIKA

1. Auhén sinfonikoa. *Benito Lertxundi*
2. Bilbao 00:00 h. *Kepa Junkera*
3. Bada hiri gorri bat. *Lorelei*
4. Kalanbreak. *Gozategi*
5. Marijane kanta zan. *Oskorri*
6. Ardi larraz. *Latzen*
7. Alaitz eta Maider. *Alaitz eta Maider*
8. Dabilen harria. *Ruper Ordorika*
9. Oskorri & The pub ibiltaria. *Oskorri*
10. Etzakit. *Etzakit*

KANPOKO MUSIKA

1. Titanic. *BSO. James Horner*
2. Arena en los bolsillos. *Manolo García*
3. Gloria. *Gloria Stefan*
4. Tubular Bells III. *Mike Oldfield*
5. Hay cuentos aún por inventar. *Doctor Deseo*
6. Más. *Alejandro Sanz*
7. Clandestino. *Manu Chao*
8. Devil came to me. *Dover*
9. The Best of Eternal. *Eternal*
10. Sombras de la china. *Joan Manuel Serrat*

Iturria: Bilintx, Peñalba eta Zangitu



LIBURU SALDUENAK

EUSKARAZ

1. Tentazioak. *Jasone Osoro*
2. Ostegunak. *Jon Arretxe*
3. Maitasun eleberriak... *Luis Sepulveda*
4. Galdu arte. *Juan Luis Zabala*
5. Zozoak beleari. *Andoni Egaña*
6. Banbulo. *Bernardo Atxaga*
7. Nik ere germinal egin... *Koldo Izagirre*
8. Groenlandiako lezioa. *Bernardo Atxaga*
9. Hitzzen ondoeza. *Joseba Sarrionadia*
10. Baleen barbaroa. *Edorta Jimenez*

GAZTELERAZ

1. La botica de la abuela. *Telebistako saioari buruzkoa*
2. Las cenizas de Angela. *Frank McCourt*
3. Beatriz y los cuerpos celestes. *Lucía Etxebarria*
4. Comida sana para saber vivir. *M. J. Roselló/M. Torreiglesias*
5. El dios de las pequeñas cosas. *A. Roy*
6. El hereje. *Miguel Delibes*
7. El libro negro del euskera. *Joan Mari Torrealdai*
8. El tercer gemelo. *Ken Follet*
9. Afrodita. *Isabel Allende*
10. El sol de breña. *Arturo Perez Reverte*

Iturria: Bilintx, Peñalba eta Zangitu

ERREBISTA SALDUENAK

1. Pronto. 275
2. Lecturas. 148
3. Semana. 129
4. Hola. 100
5. Mia. 78
6. Diez Minutos. 76
7. El Mueble. 82 (hilabetekaria)
8. Entervi. 39
9. Que me dices. 25
10. Muy Interesante. 43 (hilabetekaria)
11. Cosas de casa. 28 (hilabetekaria)
12. Mi Casa. 25 (hilabetekaria)

Iturria: Herriko kiosko eta liburutendak

EGUNKARI SALDUENAK

1. El Diario Vasco. 1.690
2. Euskadi Informacion. 281
3. Marca. 169
4. El Mundo. 111
5. Deia. 98
6. El Pais. 62
7. Egunkaria. 37
8. El Mundo Deportivo. 30
9. El Correo. 30
10. Expansion. 20
11. ABC. 2
12. As. 2

Iturria: Herriko kiosko eta liburutendak

Oharra: Datu hauetan ez daude sartuta harpidetzenak eta kontuan izan behar da kasuren batean, Egunariaren kasuan adibidez, harpidetzarena dela salmentabiderik nagusiena.



ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

1998an jaiotakoak

URTARRILA

- 15 Irati Murgiondo Izagirre
- 24 Markel Garmendia Molina
- 29 Ibon Etxebarri Goiti

OTSAILA

- 1 Julep Herrero Garai
- 3 Josu Fernandez Goenaga
- 6 Joseba Carnicero Padilla
Miren Carnicero Padilla
- 7 Gorka Kortabarría Perez
- 8 Maria Agirrezabal Pascual
- 10 Asier Perez Etxebarria
- 13 Aritz Oiarzabal Puertas
- 18 Jokin Gutierrez Zenitagoia
- 21 Eider Moncayola Goiti
- 20 Jon Ander Perez Garcia

MARTXOA

- 1 Mikel Momoitio Azkarate
- 3 Miren Manuel Zelaia
Josu Zezeaga Larrañaga
- 4 Maite Etxaniz Gonzalez
Eukén Azpeitia Iturbe
- 5 Sergio Fernandez Costa
Mikel Garcia Garcia
- 11 Beñat Landa Zubizarreta
- 13 Unai Balanzategi Curado
Aitor Zurro Arrazola
- 14 Elisa Andrinua Irazabal
Unai Belategi Garcia
- 17 Julen Nuñez Antolin
- 18 Iker Gallego Torres
- 19 Unai Agirre Manzisidor
Jon Etxebarria Arreseigor
- 20 Unai Prieto Loidi
- 21 Irene Garcia Leturiaga
- 23 Mikel Elkoroberezibar Beloki

APIRILA

- 24 Itsaso Igarza Gainza

MAIATZA

- 2 Eneko Kortabarría Barruso
- 3 Xabier Gurutz San Jose Ruiz
Lorea Palacios Olamusu
Oihana Ot Guenetxe
- 6 Leire Zabaleta Bengoa
- 13 Mireia Ibabe Garitano
Alazne Rodriguez Etxebarria
- 20 Tamara Zafra Liberal
- 21 Mikel Gutierrez Beitialarrangoitia
- 22 Josu Agirre Garmendia
- 25 Manex Bengoa Arregi

EKAINA

- 2 Irati Lazpiur Barrainkua
- 3 Ander Odriozola Elkoroberezibar
- 5 Irati Lazkano Dovao
- 9 Leire Moñux Ibarra
- 17 Olaia Sanchez Osuna
- 18 Markel Labaka Garamendi
- 22 Ainhoa Murillo Pineda
- 30 Lorea Vicente Jauregi

UZTAILA

- 2 Marina Juaristi Berasategi
- 7 Maider Ramudo Marcos
- 10 Unai Lizarralde Iturbe
Iker Osinaga Fernandez
- 13 Gurutz Xpe Telleriarte
- 15 Luis Ibañez Zabaleta
- 20 Brian Escobar Rubio
- 24 Uxue Egaña Iztueta
Miren Txurruka Loidi
- 25 Sara Peñin Alberdi
- 26 Eneko Larrañaga Madariaga
- 30 Aitor Larrea Sebal

*Mila miliako bidaia,
pauso batekin basten da.
Lao-Tse*



ABUZTUA

- 12 Maite Arrillaga Bengoa
- 23 Maitane Atutxa Eguren
- 28 Eider Egaña Oianguren
- 31 Maider Jauregi Aranburu

IRAILA

- 3 Unai Barragan Leniz
- 4 Biken Larrañaga Moñux
June Iturbe Madinabeitia
- 9 Mikel Vicinay Urzelai
Nora Irizar Garcia
- 11 Leire Ugarte Juaristi
- 12 Garazi Beristain Urzelai
- 13 Miren Castelo Azkarate
Alba Bolinaga Cuevas
Beñat Vicente Lazkano
- 16 Ainhoa Monterroso Salas
- 17 Ainhoa Aranburu Guridi
- 21 Aitor Zabaleta Muñoz
Oihane Larrion Moro
- 27 Ane Loidi Eguren
- 29 Miren Amaia Mujika Silva
- 30 Nerea Aginagalde Batsardou

URRIA

- 1 Peio Irizar Laskurain
- 4 Nerea Julian Lorente
Irati Bretainia Olabarria
- 14 Cristian Gomez Galdos
- 17 Jabier Santocuat Azkarate
- 23 Ander Arruti Lapeira
- 24 Leire Gantxegi Kortabarría
Yune Nogueiras Crespo
- 27 Mikel Azkarate Durana
- 31 Andoni Barriobero Igarza

AZAROA

- 4 Alasne Etxebarri Alberdi
- 5 Iker Otadui Sanz
- 7 Mariñe Diaz Arizmendi
- 8 Maider Gago Juaristi
- 11 Unai Zubizarreta Agirrezabal
- 16 Harri Otermin Bergaretxe
Hirune Astigarraga Oregi
- 20 Ainhoa Garcia Vila
- 21 Julen Seco Solana
- 24 Jon Andoni Gomez Lopez
- 26 Ekhiñe Garcia Garzo
- 27 Asier Jorge Gabilondo

ABENDUA

- 8 Julen Azkarate Iztueta
- 9 Maite Gallastegi Etxaniz
- 18 Markel Muniategiandikoetxea Larrañaga

Argitapen honen edizioko laguntzaile:



*fundazioa
fundación*

1998an hildakoak

URTARRILA

- 2 Ana Maria Estevez Saenz, 69 urte
Placida Garcia Jimenez, 87 urte
- 5 Julia Egizabal Olabarria, 89 urte
- 6 Dolores Belaga Romero, 93 urte
- 9 Xixili Bikuña Artolazabal, 82 urte
- 13 Nicolasa Urriategi Maiztegi, 79 urte
- 17 Maria Cerdan Anso, 78 urte
- 20 Maria Lamarain Azkarate, 86 urte
- 21 Maria Purificación Gabilondo Artiz, 86 urte
- 25 Eulogia Iturbe Lizarralde, 80 urte
- 27 Regino Sarasketa Amuskibar, 82 urte
- 28 Inocencia Ugarteburu Aranburu, 92 urte
- 31 M. Adoración Gallastegi Alberdi, 77 urte

OTSAILA

- 1 Pablo Aranzabal Oianguren, 55 urte
Ignacia Luarizaristi Mujika, 87 urte
- 2 Maria Palacios Castillejo, 88 urte
- 3 Isidora Azkarateaskasua Larrañaga, 84 urte
- 5 Maria Elguero Losada, 81 urte
- 7 Eugenia Regil Agirre, 88 urte
- 11 Julio Azkarateaskasua Larrañaga, 85 urte
Mari Cruz Biteri Eguren, 75 urte
- 13 Jesus Oroitz Leonardo, 69
- 14 Bittori Zabaleta Alberdi, 86 urte
- 15 Eloy Elortza Zarautz, 56 urte
- 16 Ignacio Otaño Zabaleta, 82 urte
- 18 Emilia Orellana Rajado, 70 urte
- 20 Placido Urriategi Maiztegi, 81 urte
- 26 Julia Jauregi Aranes, 91 urte
- 28 Francisca Unzueta Arteaga, 76 urte

MARTXOA

- 1 Julian Garitano Elkoroiribe, 72 urte
- 2 Juana Josefa Ugarte Beitia, 88 urte
Salvador Alvarez Lagarejos, 54 urte
- 4 Antonia Sagastigutxia Etxebarria, 92 urte
- 5 Pedro Garcíandía Otxoa, 87 urte
- 8 Presentación Lonbide San Martín, 92 urte
- 9 Esteban Lezama Oseguera, 88 urte
- 10 Julian Iñiguez de Heredia Martínez de Ibarreta, 91 urte
- 12 Luzia Amutxastegi Txintxurreta, 101 urte
- 13 Jose Maria Azkarate Retolaza, 63 urte
Francisco Herreros Camacho, 53 urte
Juanita Irasoegi Elejalde, 56 urte
- 14 Maria Angeles Ruiz Santa Eulalia, 60 urte
- 15 Rafaela Etxezarreta Alberdi, 81 urte
- 17 Miguel Egia Legorburu, 70 urte
- 18 Floriana De Castro Mata, 94 urte
- 20 Mikaela Mardaras Madariaga, 86 urte
Melchora Muruamendiaraz Oruesagasti, 88 urte

- 24 Martin Mujika Barrenetxea-Arando, 75 urte
Maria Dolores Aranzabal Laskurain, 75 urte
- 26 Joseba Gabilondo Albisua, 90 urte
Dominika Laka Onandia, 77 urte
- 30 Santos Ena Dieste, 95 urte

APIRILA

- 2 Jose Maria Mujika Alustiza, 69 urte
- 3 Kosme Agustin Muguruza Lizaso, 84 urte
- 5 Maria Intxausti Ibarra, 69 urte
- 10 Dolores Rodríguez Rot, 39 urte
- 12 Antonia Cuesta Ots, 74 urte
Francisca Gantxegi Lizarralde, 89 urte
- 17 Segunda Gallo, 77 urte
- 19 Cipriana de Castro Mata, 91 urte
- 23 Maria Rosario Belio Frances, 80 urte
- 30 Luisita Solsona Gallastegi, 74 urte

MAIATZA

- 4 Jose Aranburu Intxausti, 82 urte
Manuel Tena Merino, 84 urte
- 6 Jose Maria Etxebarria Etxarri, 59 urte
- 12 Maxima Anduaga Letamendi, 59 urte
- 13 Margarita Sasieta Agirrezabaltegi, 89 urte
- 17 Andres Prieto Plaza, 72 urte
- 18 Elisabete Arana Txintxurreta, 77 urte
Jose Murgia Lopez de Araia, 80 urte
- 20 Marcelino Martinez Gonzalez, 75 urte
- 22 Marcelino Moreno Gonzalez, 82 urte
- 25 Beatriz Elguero Losada, 83 urte
- 27 Victor Gomez Boyer, 28 urte
- 30 Maximo Gallastegi Gallastegi, 76 urte
- 31 Toribio Aranguren Campos, 88 urte

EKAINA

- 1 Maria Gisasola Sorrondegi, 87 urte
- 4 Eulogia Palomero Cabrejas, 74 urte
- 9 Kontxita Quintana Lonbide, 69 urte
- 23 Jose Inza Goenetxea, 50 urte

UZTAILA

- 3 Jose Antonio Zabala Unzurrunzaga, 78 urte
- 4 Tiburcio Romero Tejado, 40 urte
- 6 Vicenta Larrañaga Uribetxeberria, 89 urte
Zoilo Balseira Pozo, 75 urte
- 8 Julian Leturia Mendiaraz, 84 urte
- 11 Juan Maria Loiti Agirre, 63 urte
Hilario Orbea Gallastegi, 74 urte
- 16 Maria Irastorza Albizu, 96 urte
- 23 Jesus Maiztegi Gantxegi
- 24 Jabier Idigoras Gardoki, 54 urte
- 25 Joakin Etxaniz Artetxe, 84 urte

ABUZTUA

- 6 Ubaldo Rodríguez Diaz, 85 urte
- 7 Kontxita Aldekoa Olabarria, 84 urte
Pedro Ruiz Ruiz de Gauna, 66 urte
- 8 Maria Ormazabal Aiastui, 93 urte
Jose Gonzalez Mateo, 64 urte
- 22 Jose Agirre Uranga, 70 urte
- 31 Dolores Irazabal Aranzabal, 85 urte
Teodora Alberdi Garbizu, 72 urte

Itsasuntzia bodeiertzean ezkututzen denean ez da betiko desagertzen, bistatik galdu besterik ez da egiten.
Elisabeth Kübler-Ross



IRAILA

- 2 Domingo Agirrebeña Auzmendi, 84 urte
- 7 Iñaki Iza Zabala, 50 urte
- 9 Doroteo Aldazabal Lizarralde, 64 urte
- 10 Eduardo Castellano Martinez, 63 urte
- 15 Lolita Erdabide Etxaniz, 76 urte
- 18 Juana Olivas Garrido, 76 urte

URRIA

- 1 Mari Karmen Lizau Larrañaga, 69 urte
- 2 Miguel Oianguren Jauregi, 77 urte
- 3 Felipa Bergaretxe Ibabe, 93 urte
Xabier Aizarna Azula, 76 urte
- 8 Josefa Arrue Jaka, 87 urte
Ellen Kenny Flynn, 91 urte
- 16 Jose Badiola Gabilondo, 72 urte
- 19 Bixente Lazpiur Gisasola, 80 urte
- 22 Maria Pilar Garaikoetxea Etxaniz, 57 urte
- 25 Maria Larrañaga Lete, 86 urte
- 26 Santos Rodrigo Benedi, 89 urte
- 28 Felix Lizarralde Bakoikua, 69 urte
- 30 Damiana Elorriaga Zabaleta, 75 urte

AZAROA

- 1 Asunción Garcia Alonso, 72 urte
- 7 Manuel Jimenez Milan, 59 urte
- 12 Cirilio De Pedro Allende, 93 urte
- 15 Eugenia Igarza Iñarra, 89 urte
- 17 Luis Bideluze Barandiaran, 74 urte
Mercedes Amo Traspaderne, 72 urte
Joakin Asiain Erro, 57 urte
- 18 Emilio Rios Alvarez, 79 urte
- 23 Angel Agirre Gonzalez de Durana, 76 urte
- 25 Felisa Dovao Cobelo, 77 urte
- 27 Mirian Jauregi Aldalur, 37 urte
- 29 Tiburcia Larrañaga Agirregomezkorta, 72 urte
Felix Aseginolaza Araiztegi, 78 urte

ABENDUA

- 4 Ana Maria Mendizabal Ostolaza, 79 urte
- 9 Rufina Beistegi Umerez, 93 urte
Teodoro Sainz Iloro, 97 urte
Pedro Laspiur Eguren, 88 urte
- 10 Jose Umerez Guridi, 86 urte
- 14 Felipa Gantxegi Lizarralde, 81 urte
- 15 Juan Agirrebeña Mujika, 74 urte



Eskolan lagunartean, 1973

Bergarako ikasleek Gabonetako oporrak izango dituzte gaurtik aurrera. Argazkian agertzen direnek, ostera, aspaldikoak dituzte eskola egunak. Seguruenik oraindio gogoan edukiko dituzte orduko opor luzeak eta sasoi hartan Gabonek zeukaten majia berezia.

Erretratua 1972-73 ikasturtean aterata dago, Matxiategiko Eskola Nazionaletan, gaur egun Aranzadi Ikastola dagoen ikastetxean hain zuzen. OHOKo lehen eta bigarren mailan Jose Manuel Elices irakaslearekin ibili ziren

gaztetxoak eta, beharbada, irakasleak berak aterako ziren erretratoa. Matematika edota zientziatiko lezioa eten eta hor ditugu klaseko taldetxo bat kamara aurrean, poz-pozik.

Hara hor zeintzuk diren argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Joseba Gallastegi, Edu Jauregi, Miguel Arregi, Ismael Mondragon, Jon Iturriaga, Iñigo Larrañaga eta Gotzon Aranzabal. Atzerago Moises Etxaniz agertzen da eta arbel ondoan, zutik, Iñigo De Pedro.

Argazkia: Edu Jauregi



zumelaga
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

*URTE BERRI ON!
Eskatu lekua Errege
beizerarako*

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ! Jai zoriontsuak!



Masterreka 9. Telefonoa eta faxa: 943 76 29 65



Barrenkalea 23. Telefonoa eta faxa: 943 76 29 65

Gabon zoriontsuak
eta urte berri on!

ederTU

Estilo guztietako
altzariak eta
dekorazio gaiak.

Gabonetan inor esku-hutsa

Q con E poltsa
GARNISH. San Pedro 12



Umeendako *Chiquitin* botak
ZAREN. Telsforo Aranzadi 2

Calvin Kleinen One
perfumea emakume
nahiz gizonezkoendako
AMAIA. Barrenkalea 25



Voodoo kamiseta, kirol jertse
eta praka elastikoak
XAMARTIN. Ibargarai 20



Burberrys parka
MUJIKA. San Martin plaza



Barrurako termometroa, kanporako
termometro kable gabea eta erloju
iratzargailua
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA. Ibargarai 16

Infinit Gold Collection
bitxiak
ARANTZA. Barrenkalea



Levi's-Denim
kazadora
eta sudadera
CRISTINA.
Arruriaga z/g



laga ez dezazun.



Tissot "Serie Oro"
IRUDI. Ibargarai 2



*Urban prakak
eta panazko berokia*
JANDEN. Irizar 1

Air titanium
titaniozko
betaurrekoak,
banatzaile eskusiboa
MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA.
Ibargarai




Belcor bularretakoa
IGARZA. Irala 5



Canon Prima Zoom 70F
argazki kamara. 19.950 pta
KIÑU. Barenkalea 35



Germaine de Capucciniren
C bitaminadun aurpegirako
krema eta errektibatzailea
GIARTZU. Boni Laskurain 3




Calvin Kleinen galtzontziloak
ZUBIKUA. Barrenkalea 24

Guinot institutuaren Beaute Neuve
aurpegirako krema eta maskarila,
fruituen azido suabez egina
GIARTZU. Boni Laskurain 3



Eta laga ez zaitzaten.

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK



BERGARA (GIPUZKOA)

San Juan Ereka. Elgetara bidea.

Tf.: 943 76 36 42 - Faxa: 943 76 54 25.